



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

**SOZIOLINGUISTIKA ARLOKO
TEKNIKARIEN FORMAZIO
PREMIEN AZTERKETA**

Andoainen, 2008ko apirilean





AURKIBIDEA

1- SARRERA	2
2- PROIEKTUAREN NONDIK NORAKOAK	3
2.1- AURREKARIAK	3
2.2- PREMIEN AZTERKETA PROZESUA	5
2.2.1- Diseinua	5
2.2.2- Informazio Bilketa	7
2.2.3- Informazioaren Hustuketa Eta Ondorioak	7
2.2.4- Kontrastea, ekarpenak eta sakontzea	8
3- EMAITZA: formazio premien diagnostika	8
3.1- SOZIOLINGUISTIKA ARLOKO TEKNIKARIEN LANA	8
3.1.1- Udaletako Teknikariak	9
3.1.2- Enpresetako Teknikariak	13
3.1.3- Jendarte Teknikariak	16
3.2- LANEKO OZTOPOAK, GORABEHERAK ETA ZAILTASUNAK	19
3.2.1- Udaletako Teknikariak	20
3.2.2- Enpresetako Teknikariak	22
3.2.3- Jendarte Teknikariak	23
3.3- TEKNIKARIAREN BEHARREZKO EZAGUTZA, GAITASUN ETA EZAUGARRIAK	24
3.3.1- Beharrezko Ezagutza Teorikoak	25
3.3.2- Beharrezko Gaitasun Teknikoak	26
3.3.3- Beharrezko Ezaugarri Pertsonalak	27
3.3.4- Teknikari Mota Bakoitzarentzat Beharrezkoenak	28
3.3.5- Teknikarien formazioaren hutsuneak	31
3.4- FORMAIZIOAREN EGOERA: eskaintza eta gabeziei irtenbideak	33
3.4.1- Formazio Eskaintzaren Balorazioa	33
3.4.2- Formazioa teknikarien erakundeetan	34
4- ONDORIOAK: formazioak bete beharreko funtzioak eta betetzen dituenak.	36
5- ONDORIOEN HAUSNARKETA ETA EKARPENAK: Soziolinguistika Klusterraren Jardunaldiko Tailerra	39
6- ERANSKINAK	43
6.1- GALDETEGIA	43
6.2- GIDOIA	47
6.3- UDAL TEKNIKARIEN ZEREGINEN MAPA	49
6.4- ENPRESETAKO TEKNIKARIEN ZEREGINEN MAPA	49
6.5- JENDARTE TEKNIKARIEN ZEREGINEN MAPA	50
6.6- TEKNIKARI LANERAKO TEORIA, TEKNIKA ETA EZAUGARRI PERTSONALEN ZERRENDA	51
6.7- SOZIOLINGUISTIKA ARLOKO FORMAIZIO ESKAINTZA	52



1- SARRERA

Hizkuntzaren normalkuntza eta hizkuntza plangintza orain dela 25 urte abian jarri zen Euskal Herrian eta egitasmo horiek burutzeko hainbat teknikari kontratatu dira udaletxe, enpresa eta bestelako erakundetan. Teknikari horien prestakuntza profesionala soziolinguistikaren arloari eta hizkuntza soziologiari dagokienez nahiko urria izan da, ordea. Izan, formazio eskaintza ez baitzegoen ere orain gutxi arte.

Hainbat adituren iritzia jarraituz eta teknikari askoren eskaerari erantzunez, Soziolinguistika Klusterrak ezinbestekotzat jo du *Teknikari eta profesionalen formazio premiak* identifikatzea.

Horretarako bi urrats nagusi eman beharra aurreikusi genuen. Hasteko, soziolinguistika arloko teknikari lanerako formatzeko aurki daitekeen eskaintza zein den aztertzea. Eta ondoren, teknikarien formazio beharrak identifikatzera bideratutako azterketa saioa burutzea.



2- PROIEKTUAREN NONDIK NORAKOAK

2.1- AURREKARIAK

Lehenik eta behin, Euskal Herrian hizkuntza normalkuntzaren arloan lan egingo duten teknikariek egun dituzten formazio eskaintzak identifikatzea beharrezko ikusi genuen. Alegia, lehen-lehenik auziaren egoera zertan den aztertu behar genuen. Ondoren, aurrerabide posibleak, teknikarien formazio premiak, zeintzuk diren aztertu ahal izateko.

2006. urtean zehar, proiektuaren lehen urratsa eman genuen; gaur egun Euskal Herrian soziolinguistika alorreko lanari begira baliagarria izan daitekeen formazioa ematen duten erakundeetako (EHU, MU, Deustuko Unibertsitatea, UEU, Asmoz fundazioa,...) ordezkarien bidez hauetako bakoitzean dagoen eskaintzaren berri jaso eta Bat Soziolinguistika Aldizkarian publikatu genuen (61. zenbakia). Gainera, kanpoko esperientzien erreferentziak jasoz, hasieran genuen ideia baino emaitza osatuagoa eskuratu genuen.



2006-2007KO SOZIOLINGUISTIKA IKASKETEN ESKAINTZA

ERAKUNDEA	FAKULTATEA	PROGRAMA	STATUSA	IKASGAIK
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA	FILOLOGIA, HISTORIA ETA GEOGRAFIA FAKULTATEA (GASTEIZ)	FILOLOGIAK (ING, FRA, ALEM, EUSK, KLAS), INTERPRETAZIOA ETA ITZULPENGINTZA (GAZT. ETA EUSK)	LIZENTZIATURA	SOZIOLINGUISTIKA (Ikasgai 1) (Hautazkoa)
		HIZKUNTZALARITZA, SAILARTEKO DOKOTOREGO PROGRAMA	DOKTOREGOA	SOZIOLINGUISTIKA REN OINARRIAK ETA HASTAPENAK (Ikasgai 1) (Derrigorrezkoa)
EHU + BARTZELONAKO UNIBERTSITATEA + JAUME I UNIBERTSITATEA	FILOLOGIA, HISTORIA ETA GEOGRAFIA FAKULTATEA (GASTEIZ)	HIZKUNTZALARITZA, UNIBERTSITATE ARTEKO PROGRAMA	DOKTOREGOA	UKITUTAKO HIZKUNTZEN SOZIOLINGUISTIKA (Ikasgai 1) (Derrigorrezkoa)
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA	GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA (LEIOA)	SOZIOLOGIAN LIZENTZIATURA	LIZENTZIATURA	(6 Ikasgai) (Hautazkoa)
MONDRAGON UNIBERTSITATEA	HUHEZI	IRAKASLE IKASKETAK		(2 Ikasgai)
		PSIKOPEDAGOGIAN LIZENTZIATURA		(4 Ikasgai)
		HIZKUNTZEN KUDEAKETAN ADITU TITULUA	ESPEZIALISTA TITULUA	
DEUSTUKO UNIBERTSITATEA	FILOSOFIA ETA LETREN FAKULTATEA	EUSKAL FILOLOGIAN LIZENTZIATURA	LIZENTZIATURA)	SOZIOLINGUISTIKA (Ikasgai 1) (Derrigorrezkoa)
		FILOLOGIA SAILA ETA SOZIOLOGIA SAILA	IKERKETA ARLOA	
PAUEKO ETA ATURRIKO HERRIETAKO UEU	BAIONAKO IRAKASGAIEN ARTEKO FAKULTATEA.	EUSKAL FILOLOGIA/ EUSKAL IKASKETAK	MASTERRA	(2 Ikasgai) (Hautazkoak)
			LIZENTZIATURA	
UEU		SOZIOLINGUISTIKA SAILA	20 ORDUKO IKASTAROA	SOZIOLINGUISTIKA
UEU + EHU		HIZKUNTZA TEKNOLOGIAK (HIZTEK)	GRADUONDOKOA (ESPEZIALISTA TITULUA)	
EUSKO IKASKUNTZA	ASMOZ (ONLINE)	HIZNET	GRADUONDOKOA (ESPEZIALISTA TITULUA)	(26 Ikasgai)
		LINGUANET	IKASTAROA	
RENOKO UNIBERTSITATEA	EUSKAL MINTEGIA	EUSKAL IKASKETAK		

(Ikus 6.7 eranskina)



2.2- PREMIEN AZTERKETA PROZESUA

2.2.1- Diseinua

Ikerketaren diseinua, 2007.aren irailean zehar egin zen. Soziolinguistikaren arloan lan egiten duten teknikari eta profesionalen formazio premiak dira aztertu nahi genuena. Horretarako, metodologia edo oinarri teorikoa finkatzea izan zen gure lehen egitekoa. Horrela, gure analisia egiteko hiru maila desberdin erabili genitzakeela ikusi genuen: erakundearen analisia, egitekoen analisia edo pertsonaren analisia. Hauetako batzuk edo guztiak egiteko aukera egon liteke. Gure kasuan, aztertu beharrekoa ez zenez, ez erakunde zehatz bat ez eta pertsona konkretu batzuk, baizik eta euskara teknikarien multzoa, oro har, interesgarriena **egitekoen analisisan** zentratzea izango zela lehenetsi genuen. Egitekoen analisiaren bidez lana eraginkorki burutzeko kontuan hartu beharreko helburu eta irizpideak ezagutu asmo genituen. Horrela, lan postu horri dagozkion egitekoen ezagupen ahalik zehatzena lortuta, egiteko horiek garatzeko beharrezko ezagutza, trebetasun eta abileziak identifikatu ahal izango genituen.


Behin hau finkatuta, egitekoen analisia aztertzeko metodologia finkatu behar genuen. Horretarako, metodologia eta teknika desberdinak erabilgarri izanagatik, gure proiektuaren ezaugarri gehien egokitzen zitzaiona **analisi funtzionala** zela erabaki genuen. Ikerketa metodologia honek, lan arlo bat eraginkorki garatzeko, langile batek izan behar lituzkeen gaitasunak ezagutzeko aukera eman zigun.

Azkenik, formazioaz hitz egiten ari garela, teknikarien formazioaren alderdi desberdinak definitu beharra ikusi genuen. Izan ere, hauek izendatzeko garaian, kontzeptu desberdin ugari topatzen baikenituen: gaitasunak, konpetentziak, abileziak, ezagutzak, trebeziak... Hortaz, gure kasurako alderdi hauek definitu eta finkatu beharra ikusi genuen. Horretarako, hezkuntza esparruan erabili ohi diren kontzeptuak erabili genituen erreferentzia gisa (ikus 2037/1992 dekretua, EAEko Lehen hezkuntzarako curriculum-a ezartzen duena). Horrela, **gaitasunak** zehazteko jatorrizko definizioak erabili arren, izendapenak egokitu genituen, ulerterrazagoak egite aldera:

- **Kontzeptualak edo teorikoa:** gertakariak, kontzeptuak, printzipioak...
- **Prozedurazkoa edo teknikoa:** prozedurak, teknika, estrategiak, trebetasunak, errutinak...
- **Jarrerazkoa edo ezaugarri pertsonalak:** baloreak, jarrerak, arauak...



Behin, oinarri hauek finkatuta, azterketa beraren prozesua diseinatu eta irudikatu genuen. Hemen duzue:



Azkenik, alor honetako langileak hainbat esparrutan aurki litezkeenez, esparru hauek multzo desberdinetan sailkatu genituen:

- 1) Ikastetxeetako teknikariak
- 2) Udaletako teknikariak
- 3) Lantokietako teknikariak
- 4) Jendarte teknikariak

Hala ere, lau multzo horietatik, lehenengoaren azterketa egitea baztertu genuen, Ulibarri programan ikastetxeetako normalkuntza arduradunen formazioaz arduratzen direlako eta, bestalde, gure bazkide diren erakundeak lehenestearen ikuspuntutik.

Diseinu fase honen barnean, gaiari buruzko informazio bilketa aipatutako hiru esparruetan lan egiten duten teknikariei pasatako galdetegi bidez eta aztertutako erakundeetan formazioaren ardura duten pertsoneri elkarrizketak eginez bideratzea erabaki genuen. Ondorengo koadroan biltzen da aztertutako erakundeetako bakoitzean informazioa biltzeko erabilitako bitartekoa:



Udaletako teknikariak		Lantokietako teknikariak		Gizarte teknikariak	
Erakundea	Bitartekoa	Erakundea	Bitartekoa	Erakundea	Bitartekoa
Hernaniko Udala Lasarte-Oriako Udala Bergarako Udala Bermeoko Udala Baztango Udala Zaraitzuko Ibaxaren batzordea	Elkarrizketa Elkarrizketa Galdetegia Galdetegia Galdetegia Galdetegia	Emun Koop. E. Elhuyar Aholkularitza Artez	Elkarrizketa eta Galdetegia Elkarrizketa eta Galdetegia Galdetegia	Topagunea Urtxintxa (soziolinguistika saila)	Elkarrizketa eta Galdetegia (2) Elkarrizketa eta Galdetegia (2)

2.2.2- Informazio Bilketa

Informazio bilketa lana 2007ko udazkenean zehar burutu zen. Lehendabiziko pausoa galdetegiak prestatzea izan zen. Langileen formazio premien inguruko *analisi funtzionalaren* ikuspegia oinarri teoriko bezala erabiliaz, ordubetea bete ahal izateko galdetegiak prestatu zen, hau betetzea teknikariek lan orduetan eta euren borondatez egingo zutela kontuan hartuta denbora gehiegi ez eskatzeari begira. Galdera irekiz osatutako galdetegiak zen (ikus 6.1 eranskina). Galdetegiak betetzeko, hiru asteko epea eman zitzaizkien teknikariei, nahiz eta azkenean, praktikan bost asteko epera luzatu zen.

Galdetegietan jasotako informazioa baliatuta, elkarrizketetarako euskarri nagusi izan diren gidoiak osatzen joan ginen. Gidoi orokor bat osatu genuen (ikus 6.2 eranskina), baina erakunde bakoitzarengana jotzean, erakunde bertatik heldutako galdetegietan argitu gabe geratu zitzaizkigun puntuak argitzeko saiakera berezia egin genuen. Horrez gain, galdetegietan jasotako erantzunetatik osatu genituen *Teknikarien zereginen mapak* deitutako mapa kontzeptualak elkarrizketan gai batzuetan sakontzeko euskarri gisa erabili ziren (ikus 6.3, 6.4 eta 6.5 eranskinak). Honi, 2006an egindako *formazio eskaintzaren azterketaren emaitza izan zen koadroa* (ikus 6.7 eranskina) ere gehitu behar zaio, formazio eskaintza baloratzea eskatzean erabiltzen genuena. Elkarrizketak 2007ko azaroaren 9a eta 26a bitartean burutu ziren.

2.2.3- Informazioaren Hustuketa Eta Ondorioak

Elkarrizketen grabazioen entzuketatik, bertan biltzen zen informaziorik mamitsuena (gaiarekin lotutakoa) jaso zen eta teknikari moten arabera bereizi zen. Era berean, galdetegietan bildutako erantzunak ere teknikari mota taldekatu ziren. Honela, teknikari mota bakoitzari buruz bitarteko ezberdinen bidez bildutako



informazioa gaika sailkatuta genuen. Hemendik abiatuta, ikerketa honen ondorio eta emaitza nagusiak jasotzen dituen txostena idaztea izan da jarraian emandako pausoa; esku artean duzun hauxe, hain zuzen ere.

2.2.4- Kontrastea, ekarpenak eta sakontzea

Behin txostena idatzita, ikerketaren emaitzak gaian interesa izan dezaketen erakundeetako kideen (EHU, UEU, MU, Eusko Ikaskuntza,...) eta ikerketan aztertu ditugun erakundeen artean zabaldu genituen. Lehen zabalpen horren bidez jasotako ekarpenekin, txostenean aurkitutako puntu ahulak osatu eta nahasgarriak izan zitezkeen azalpenak argitzen saiatu ginen.

Azken pausoa, 2008ko otsailaren 29an, Donostiako FIHEZI fakultatean, Soziolinguistika Klusterrak burututako “geroa bermatzeko, oraina ezagutu” jardunaldian burututako tailer baten bidez, azterketaren ondorioetan seinalatutako puntu interesgarri batzuetan sakondu genuen, aztergaia bera osatzen duten teknikarien parte hartze zuzena baliatuz.

3- EMAITZA: formazio premien diagnosis

3.1- SOZIOLINGUISTIKA ARLOKO TEKNIKARIEN LANA

Euskal Herrian soziolinguistika arloko teknikari bezala lan egiten duten pertsonak, euskararen normalkuntzara begira pausoak ematea dute helburu komun bezala. Hala eta guztiz ere, lan esparruak, kokatzen diren erakundearen egituraketa mailak, ingurune soziolinguistikoak eta beste hainbat faktorek helburu horri begira lan egiterakoan teknikari hauek dituzten zeregin zehatzak erabat baldintzatzen dituzte. Honela, oso anitza da soziolinguistika arloan teknikari ezberdinek egunero egin behar izaten dutenaren panorama.

Azterketa hau egiterakoan planteatu dugun multzoen banaketaren arabera (Udaletako, enpresetako eta jendarte teknikariak) ezberdin definitzen dute langileek euren lanaren helburua. Hala ere, hiru teknikari motek egiten duten lanak *euskararen*



presentzia eta erabilera haz dadin gizartean eragitea bilatzen duela jaso dugu, dagokien arloetan horretarako aukera ematen duten esparruak eskainiz.

Udaletako eta enpresetako teknikariek, helburu orokor horri begira lan egiteko normalkuntza plangintzak erabiltzen dituztela daukate komunean, nahiz eta hauek elkarren artean alde nabarmenak dauzkaten. Ekintza zehatzei dagokionez, bereizitako hiru esparruetan egiten den lanak antzekotasun gutxi ditu besteekiko.

3.1.1- Udaletako Teknikariak

HELBURUAK

Udaletako euskara teknikarien kasuan, udala eta udalerrian euskararen presentzia eta erabileran eragite aldera zehatzago mugatutako hainbat helburu aipa genitzake. Hala ere, udal teknikarien esparruaren barruan ere, kasuan kasuko udalerriarren tamaina, egoera soziolinguistikoa, udalaren arduradun politikoen jarrera eta beste hainbat faktoreren arabera helburu batzuk edo besteak finkatzea baldintzatzen du.

Euskararen erabilerarako aukera ematen duten esparruak eskaintzea, euskararekiko urrun edo epel agertzen diren gizartearen sektoreak erakartzea, herrian normalkuntzari begira lan egiten duten beste eragileekin koordinatuta elkarlanean aritzea, administrazioko langileen artean ezagutza eta erabilera sustatzea eta udalak eta batzordeek hartutako neurriak betetzen direla ziurtatzea izan litezke, orokorrean, udal teknikari gehienek helburuak xehatuta, elkarriketa eta galdetegien bidez jaso ahal izan dugunaren arabera.

FUNTZIONAMENDUA

Aipatu bezala, hainbat faktoreren arabera oso ezberdina da udal batean eta bestean euskara sailak egiten duen lana. Zenbait herritan euskara teknikariak Euskara Zerbitzuaren egituraren barruan funtzio bereziez arduratzen diren langileak dira gaur





egun; beste kasu batzuetan, ordea, baliabide gutxiagorekin lan egiten dute eta udaletik eragin nahi den arlo guztiak lantzeko teknikari bakarra dago. Baldintzapen honek, funtzionamendu erabat ezberdinak izatea suposatzen du.

Hala eta guztiz ere, orokortasun batetik teknikarien gehiengoa edo talde handi batentzat balio dezakeen funtzionamenduaren deskribapen bat egiten saiatuz, esan dezakegu bi multzo handik biltzen dutela udaletan egiten den lana: alde batetik, “gizarte lana” edo euskararen ezagutza eta erabileran eragitea zuzenean bilatzen duen lana dago. Eta beste alde batetik, “lan administratiboa” daukagu, udal bateko edozein sailetan dauden egitekoek osatzen dutena (kudeaketa, aurrekontuak,...).

Egitekoen bigarren multzo honetan kokatzen direnak, Euskara Zerbitzuaren zuzendaritzan aurkitzen den pertsonak egiten ditu, sarri, neurri batean egituratutako euskara zerbitzuez ari garenean; beste multzoko zereginekin batera edo horretara soilik eskainiz bere denbora. Udalean euskara teknikaria bakarra denean, bere gain dago bi multzo horien ardura.

“Gizarte lana” deitu dugun multzoaren barruan, era berean, bi xede-talde aurkitzen ditugu udal teknikariaren eragin esparruan: udala eta udalerrria. Hauetan eragitera bideratutako ekintzak, normalkuntza plan baten baitan kokatzen dira. Plan hau, normalkuntzari begira esku hartu nahi den gizarte esparruka antolatuta egon ohi da. Era berean, aipatu behar da hainbat udalek eskualde mailan elkarrekin koordinatuta diseinatu eta burutzen dituztela ekintza batzuk, horretara bideratutako koordinazio guneak sortu izanari esker.

ZEREGINAK

Udal teknikari batek bere eguneroko lan jardunean bete beharreko zereginetan, helburuetan eta funtzionamenduan bezalaxe, alde ikaragarria dago kasu batzuen eta besteen artean. Kasu bakoitzak bere berezitasunak dauzkanez, zaila izango litzateke denak barne hartuko lituzkeen zereginen deskribapen bat egitea. Horregatik, Euskara Zerbitzuetan izaten diren zeregin nagusiak aipatuko ditugu jarraian, nahiz eta argi utzi behar den, zenbait kasutan lan hauek hainbat teknikariren artean banatzen direla eta beste batzuetan, bakarka lan egiten duten teknikariek burutu ditzaketen zeregin hauek mugatuago dituztela.



Euskara zerbitzu batek euskararen normalkuntzarekin lotura zuzena ez duten hainbat lan egitea eskatzen du, "lan administratiboa" delakoa. Honen barruan, kudeaketa ekonomikoarekin lotutakoak dauzkagu alde batetik. Multzo honetan sar ditzakegu *aurrekontu proposamena eta honen jarraipena* egitea eta *diru-laguntzen kudeaketa* besteak beste. *Espediente administratiboak osatzea* ere teknikari batek bere lanean burutu beharreko zereginetan sartzen da, baita *udaleko arduradun politikoekin proposamenak eta egindako kudeaketa lana onartzera bideratuta izan beharreko harremana* ere. *Udaleko dokumentu eta inprimakien itzulpena* euskara teknikariaren betebeharr bezala daukate udal askotan. Euskara sail edo zerbitzuaren egitura urte batzuen ondoren hazi den udalen kasuan, egiteko honetara espresuki bideratzen duten langile bat aurki daiteke batzuetan, baina bakarrik eta baliabide murriztagoekin lan egiten duten teknikarien multzoan, egiteko honetan euren lanaren zati handi bat ematen dutenen kasuak daude. Beste muturrean, euren zereginen artean euskara *zerbitzuaren antolaketa eta zuzendaritza* eta hau osatzen duten *teknikarien formazioaren ardura* duten langileak dauzkagu, ezinbestean maila batean egituratutako euskara zerbitzuetan ematen da egoera hau.

Udal teknikariaren zereginen bigarren multzoan, zuzenean hizkuntzaren normalkuntzara zuzendutakoetan, udalari begira eta herriari begira bideratutakoak bereizi litezke esan bezala.

Udalari begira egin beharrekoetan, *udalaren normalkuntza planaren diseinua eta jarraipena* dago, honelako plan bat daukaten udalen kasuan. Udaleko langileen ezagutza bermatze aldera, *hizkuntza eskakizunetara iristeko baliabideak* eskaintzen zaizkie: euskaltegietara bideratu, diru-laguntzen berri eman,... *Udalaren euskarazko funtzionamenduari* dagokionez, gainera, erabilera sustatzen da udalbatzan hartutako erabakiak betetzen direla gainbegiratzuz eta *erabilera esparruak zabaltzea* dakarren edozein pauso emanez.

Udalerrian eragitera bideratutako zereginak, *Euskararen Normalkuntza Plana osatu, praktikara eraman eta jarraipena* egitean laburbildu daitezke. Bertan, aurrez definituta dauden arloetan esku hartzeko jarraituko den bidea finkatzen da. Hainbat urtetarako lan esparruak eta helburuak finkatzen dituen plan nagusi hau, urtero osatzen den *urteko Kudeaketa edo Ekintza Planean* modu zehatzagoan eta



eguneratuagoan bilduta egoten da. Eskualde mailan beste udalekin koordinatuta lan egiten dutenen kasuan, urtean zehar egindako ekintzak zein esparrutara zuzendu eta zein jardueratan gauzatuko diren koordinazio gune horietan definitzen da maila handiago edo txikiagoan. Gainera, bertan bildutako neurriak momentu zehatz batean aurrera eramaten diren ekintzetan edo denboran zehar luzatzen diren lan-ildo egonkorretan gauzatzen dira.

Hainbat urtetarako edo urte bateko eperako osatutako planen kudeaketak, *herriko beste eragileekin lankidetzak* eskatzen du sarri. Eta plana osatu eta jarraitzeaz gain, bertan bildutako *ekintzetako bakoitza aurrera eramatea* (kanpainak, kultur eskaintza, formazioa, aholkularitza linguistikoa,...)

Behin eta berriz aipatua izan den arren, udal batzuetan eta besteetan burutu beharrekoen artean dagoen aldearen adierazgarri da zenbait udaletan funtzio banaketa garbia duten bitartean, beste kasu batzuetan pertsona bera dela urteko plana diseinatzetik hau praktikara eramatea suposatzen duen ekintza zehatz baten azken zereginaren erantzule, hala nola kanpaina bateko kartelak kalean itsastea edo herriko dendarien artean informazio liburuxkak banatzea.

Atal honetan aipatutako eginbehar guzti hauek aurrera eramateko, *bilerak eta hauen prestaketa* dira teknikariaren lan jardunaren zati handi bat hartzen dutenak (udal barrukoak, eskualdeko teknikariek, herriko eragileekin,...). Horrez gain, planen *diseinu eta kudeaketarako euskarriak (euskarri informatikoak batez ere)* erabiltzen dituzte etengabe. Azkenik, ekintza zehatzak aurrera eramateko eta koordinazio lanetarako, *komunikaziorako baliabideak* egunean zehar askotan erabiltzen dituzte: telefonoa, posta elektronikoa,...



3.1.1- LABURPENA

Udal teknikarien helburuak:

- Euskararen erabilerarako aukera ematen duten esparruak eskaintzea
- Euskararekiko urrun edo epel agertzen diren gizarteko sektoreak erakartzea
- Herrian normalkuntzari begira lan egiten duten beste eragileekin koordinatuta lan egitea
- Administrazioan ezagutza eta erabilera areagotzea
- Udalaren eta batzordeen erabakiak betetzen direla ziurtatzea.

LAN ADMINISTRATIBOA:

- Kudeaketa ekonomikoa (aurrekontua, diru-laguntzak, espediente administratiboak,...)
- Arduradun politikoekin harremana
- Itzulpenak
- Euskara Zerbitzuaren antolaketa eta zuzendaritza
- Beste teknikarien formazioaren ardura

GIZARTE LANA:

Udalari begira:

- Udalaren normalkuntza plana (diseinua, garapena eta jarraipena)
- Udal langileak hizkuntz eskakizunetara iristeko baliabideak eman (informazioa eskaini,...)
- Udalaren euskarazko funtzionamendua bultzatu (erabakitakoaren jarraipena,...)

Udalerriari begira:

- Herriko Euskara Plana (diseinua, garapena eta jarraipena)
- Urteko Ekintza/Kudeaketa Plana
- Inguruko udalekin koordinazioa
- Herriko beste eragileekin lankidetzatza

3.1.2- Enpresetako Teknikariak

HELBURUAK

Enpresetako teknikariaren lanaren helburua *enpresak euren nahien eta beharren arabera lan jarduna euskalduntzeari begira gidatzea* dela esan genezake elkarrizketa eta galdetegien bidez jasotako erantzunetatik. Helburuaren definizioa orokorra da, enpresetako teknikarien jardunak hartzen duen guztiari aplikagarria izan asmo duelako. Hala ere, honen barnean beste maila batean, helburu hauek ere topa genitzake: *enpresa bakoitzaren nahiei, beharrei eta baliabideei egokitutako plana diseinatzea, enpresan garatu beharreko proiektua diseinatutakoan erabaki bezala*





aurrera eramatea (hartutako konpromisoak betez) eta baita enpresak euren jarduna euskalduntzeak suposatzen dizkien onurez ohartaraztea ere, neurri batean.

FUNTZIONAMENDUA

Enpresetako teknikariaren lana, enpresari lan jarduna euskalduntzen laguntzea da. Horretarako, enpresak eskaintza jasotzen duen momentutik hasten den prozesu bat jarraitzen da. Normalean, lan mundua euskalduntzen diharduen aholkularitzaren arlo komertzialetik euskara planen berri ematen zaie bestelako enpresei: *normalkuntza plan bat aurrera eramatearen nondik norakoak azaltzen zaizkie enpresaren arduradunei (lan egiteko sistema, enpresarentzat dakartzan onurak, eskaintzen diren plan mota ezberdinak,...)*. Lan hau gehienetan arlo komertzialetik egiten den arren, teknikariak egin behar izaten duen kasuak ere izaten dira.

Enpresak eskaintza onartzen badu, adostutakoaren arabera hasten dira lanean. Kasu batzuetan, honek suposatuko du enpresan *euskara plan integral bat martxan jartzea*. Beste batzuetan, aldiz, *landu nahi den esparru jakin baterako interbentzio zehatz bat egitea* erabakiko dute, hala nola, hiztegi bat, formazio saio batzuk,...

Ikerketan informazio iturri bezala izan ditugun aholkularitzetan lanerako bi sistema ezberdin topatu ditugu: planaren hartzaille den enpresaren egoitzan lan egiten duten teknikariena eta planaren ardura duen enpresaren egoitzan (teknikariaren enpresan) lan egiten dutenena. Logistika alorreko ezberdintasun honek, ordea, ez du suposatzen alde handia enpresen funtzionamenduen artean.

Enpresa batek euskara plan integral bat martxan jartzea erabakitzen duenean, enpresako langile den *koordinatzaile bat izendatzen du* eta aldi berean, enpresaren estamentu eta sail guztien ordezkartzaren bat daukan *Euskara Batzordea osatzen da*. Koordinatzailea eta batzordearen laguntzaz, *diagnostiko bat osatzen da* euskarak enpresan duen egoera erreala ezagutzeko asmoz (ezagutza, erabilera, jarrerak,...). Diagnostiko horretatik abiatuta, teknikariak bere plan proposamena aurkezten dio batzordeari eta hemen dauden ekarpenekin *euskara planaren diseinua* definituta geratzen da. Hortik aurrera, *diseinuan aurreikusitako ekintzak aurrera eramatea eta hauen jarraipena egitea da* normalkuntza teknikariaren lana, beti ere koordinatzailea



eta euskara batzordearen laguntza eta adostasunaz. Horretarako, landu nahi den gai bakoitzaz arduratzen diren lantaldeak daude, besteak beste.

ZEREGINAK

Enpresetako euskara teknikarien zereginen zati handi bat, lehen esan bezala, euskara planen testuinguruan kokatzen da. Berea da euskara plana diseinatu, inplikaturako guztiekin koordinatu eta jarraipena egitearen ardura.

Enpresaren diagnostikoa burutzeko fasean, *langileei inkestak pasatzea, eztabaida taldeak antolatzea edo elkarrizketak egitea* dira teknikariari aurrera eramatea tokatzen zaizkion zereginak, kasuan kasu. Ondoren, diagnostiko horretatik hartu beharreko neurrietara pausoa eman eta *plana bera diseinatzeak eskatzen dituen zereginak* egongo lirateke, beti ere euskara batzordearekin elkarlanean.

Planearan bildutako neurriak aurrera eramaten direla ziurtatuz, *planaren jarraipena* egingo luke teknikariak, aplikazio informatiko baten bidez. Neurri hauek garatzeko eta praktikan jartzeko, lantaldeak sortzen dira enpresetan. Lan jarduna euskalduntzeko enpresaren arabera eta planaren hartzailea den enpresako kideen arabera, lantalde hauen antolaketa ezberdina izan liteke: batzuetan enpresako sailen araberakoa da, beste batzuetan landu nahi diren aspektuetan interesaren araberakoa eta abar.

Enpresa bateko planaren ardurak koordinazio lan handia eskatzen du planaren baitan sortzen diren guneetako bakoitzarekin (koordinatzailea, euskara batzordea, mintza taldeak, erabilera taldeak edo planaren lanketa egiteko ardura duten pertsonen antolaketak har dezakeen dena delako formak). Koordinazio lan hori burutzeko posta elektronikoa, telefonoa eta aldizkakotasun ezberdina izan dezaketen bilerak erabiltzen dituzte. Bilera hauen antolaketak, era berean, hainbat zeregin dakartza berekin: hitzorduak lotzea, bilerarako beharrezko euskarriak (dokumentazioa, aurkezpena,...) prestatzea, aktak jasotzea, erabakitakoaren jarraipena egitea, bilera bera dinamizatzea,...

Horiez gain, teknikariak bestelako hainbat lan egin behar izaten ditu, jarraitzen ari den planaren arabera: *itzulpen lanak, hiztegiak, eskolak eman, e.a.*





Euskara planak aurrera eramatea alde batera utzita, lan egiten duen enpresari begira (lan mundua euskalduntzeko enpresa) teknikariek *euren proiektuak lankideei aurkezteko* betebeharra izaten dute zenbait kasutan, *barne formazio modura* planteatutako saioen bidez.

3.1.2- LABURPENA:

Enpresetako teknikarien helburuak:

- Enpresak bere nahien eta beharren arabera euskalduntzeari begira gidatzea.
 - Euskalduntzeak suposatzen dizkien onurez ohartaraztea.
 - Nahiei, beharrei eta baliabideei egokitutako plana diseinatzea.
 - Erabaki bezala aurrera eramatea plana.

DIAGNOSIAN:

- Beharrak aztertu: langileei inkestak, elkarrizketak, eztabaida taldeak,...

DISEINUAN:

- Euskara planaren lanketarako guneak antolatu (Euskara batzordea, enpresako koordinatzailea, lantaldeak,...)
- Diseinua, euskara batzordearekin elkarlanean.

JARRAIPENA:

- Aplikazio informatiko bidezko jarraipena.
- Guneetako bakoitzarekin koordinazioa (bilerak lotu, prestatu, dinamizatu, erabakitako lanak egin,...)

BESTELAKOAK:

- Enpresentzat itzulpenak, eskolak, hiztegiak,...
- Lankideei proiektuen aurkezpenak (formazio gisa)

3.1.3- Jendarte Teknikariak

HELBURUAK

Soziolinguistika arloko teknikariak bereizteko hiru esparruen artean aldeak daudela esana dago. Baina jendarte teknikariak deitutakoen multzoa bera ere ezin esan oso homogenea denik. Talde honetan, administrazioarekin eta mundu laboralarekin harremanik izan gabe gizarteko sektore batzuetan lan egiten duten eragileak bildu nahi izan ditugu. Aztertutakoak Urtxintxa eskolaren soziolinguistika lantaldea eta Topagunea, euskara elkarten federazioa, izan dira. Lan egiteko modu eta arlo ezberdinak badituzte ere, bi erakunde hauek *gizarte sektore zehatzetako*



jendea euskarara erakartzea eta erabilera esparru berriak irekitzea bilatzen dutela esan liteke.

Topaguneak gizartearen sektore anitzetan eragitea bilatzen duten ekintzak jartzen ditu martxan, horretarako informazioaren zabalpena, zerbitzu baten eskaintza edo formazio eskaintza baliatuz. Urtxintxa eskolaren soziolinguistika sailak, formazioaren bidez haur eta gazteekin harreman zuzenean dagoen jendeari hauek euskararen erabilera erakartzeko baliabideak ematen dizkio, nagusiki.

FUNTZIONAMENDUA

Topaguneak Euskal Herriko euskara elkarten beharrei erantzunez lan egiten du. *Tokian tokiko euskara elkarteetatik sumatzen duten ahultasun puntuak, eragin beharreko puntuak eta bestelako baliabide beharrak Topaguneari helarazten dizkiote* honetarako dauzkaten bideetatik: eskualde batzarrak, federazioaren barruan dauden sailen batzarrak edo edozein momentutan eman daitekeen komunikazio zuzenaren bidez.

Bazkideetatik jasotako behar hauek aztertzen dituzte eta *erantzuteko lehenetasuna dutenak finkatzen dira* hainbat irizpideren arabera (baliabideak, eskaria,...). Zein beharri erantzungo zaion erabakita dagoelarik, helburu horri begira bideratutako *ekintza plan zehatza antolatu eta jartzen da martxan*. Ekintza plan hauen azken emaitza *formazio saioaren bat eskaini, zerbitzu bat eman edo informazioaren nolabaiteko zabalkundea egitea* izaten da.

Azkenik, *aurrera eramandako ekintzen balorazioa* egiten dute horretarako finkatutako ebaluaketa sistemaren bitartez eta programaren baliagarritasuna kontrastatzen dute bazkideen iritzia jasoaz.

Urtxintxa eskolako soziolinguistika sailetik egiten den lanak, haur eta gazteekin harreman zuzenean dauden edo lanean ari diren sektoreetan soziolinguistika edo hizkuntz ohituretan eragitearen arloan dagoen *formazio premia orokortuari erantzuten diola* esan liteke. Erakundean duten formazio eskaintza osatzen duten ikastaroetako bakoitza (euskal jolasak, lagunarteko haur hizkera jolasetan, hizkuntza jolasak) eskaintzea arrazoi ezberdinetan oinarrituz erabaki izan da: hartzaileen eskariz,



lehiaketa publiko bati erantzunez, erakundetik sumatutako behar bati erantzunez,...Hala eta guztiz ere, *etengabekoa da eskaini daitekeenaren inguruko hausnarketa* lantaldean (ikastaro berriak, DVDak,...)

Eskaintzen dituzten formazio saioak zenbaitetan xede talde espezifikoko batentzat zuzentzeko moldatu behar izaten dituzte, esate baterako jangela bateko begiraleentzat, baina normalean, *irakasle, guraso, gazte eta begiraleei zuzenduta egoten dira formazio saioak.*

Formazio saio hauetaz gain, bestelako ekintza batzuk ere burutzen dituzte Urtxintxaren soziolinguistika sailetik, hala nola, *lehiaketak antolatzea (piropo eta igarkizun lehiaketa gutxienez) eta euskararen erabilerara erakartzeko euskarri izan litezkeen bestelako baliabideak prestatuz (DVD bat, argitalpen bat,...).*

ZEREGINAK

Topaguneko langileen eginbeharrak, bazkideen beharrei erantzuten dieten ekintza programak prestatu eta elkarrekin bakoitzean praktikara eramatearen jarraipena egitea dira, nagusiki. Horrek, praktikan *koordinazio lan handia* eskatzen du hasteko. Izan ere, beharrak jasotzeko, transmititzeko eta hauei erantzun asmo duten *ekintza programak bideratzeko hainbat talderekin bilerak* egin ohi dira: Topagunearen barne-sailetikako bilerak, bazkideekin (euskara elkarteak), erakunde publikoekin, Topaguneko zuzendaritzarekin eta abar. Koordinazio lan hau da euskara elkartearen *federazioko langile baten lan jardunaren zati handiena hartzen duen egitekoa*. Alde batetik *bilerak berak eta bestetik bileren prestatzea, hitzorduak lotzea, bileretatik hartutako erabakietatik eratorzen diren egitekoak, ...*

Urtxintxa eskolaren soziolinguistika lantaldearen zereginak, formazio saioak eskaini, berriak diseinatu eta bestelako zenbait ekintza puntualetara bideratutakoak dira (lehiaketak, euskarri berriak,...). Formazio saioak prestatzeak dakartzan zeregin zehatzen artean, *hartaile taldearen ezaugarriak ezagutzearena* dago lehendabizi. Diagnostiko hau hartaile taldearekin harremana duen kontakturen baten laguntzaz egiten da. Ondoren, ikastaroan transmititu nahi den mezua zehaztua dagoelarik, *saioa bera ematen da*. Ez da hitzaldi handirik izaten, talde dinamiketan oinarritutako



metodologiaren bitartez, formazio saioaren hartzaileen iritzi eta aurreiritziak jaso eta argumentuen bidez buelta ematea da erabiltzen den estrategia.

Honetaz gain, *soziolinguistika lantaldearen barne bilerak* burutzea, lehiaketen antolaketa, euskarri anitzetako materialen prestaketa eta ikastaro berrien lan ildoak adostea dira teknikariek izaten dituzten zereginak.

Bi erakundeetan (Topagunea eta Urtxintxa) teknikariek euren lanaren helburuarekin zuzen-zuzenean loturik ez dauden egitekoak burutu ditzakete, erakundean bertan betetzen duten funtzio osagarriren baten barruan, hala nola, lan administratiboak (diru laguntzak, fakturazioak,...) edo beste erakundeekiko harremanak zaintzea.

3.1.3- LABURPENA

Jendarte teknikarien helburuak:

- Gizarte sektore zehatzetako jendea euskarara erakartzea eta erabilera esparru berriak irekitzea.

Topagunea:

- Informazioa zabalpena, zerbitzuen eta formazioaren eskaintzaz gizarte sektore anitzetan eragitea.

Urtxintxa (SL saila):

- Formazio saio eta material didaktikoaren bidez haur eta gazteekin harreman zuzenean dagoen jendeari hauek euskararen erabilera erakartzeko baliabideak ematea.

TOPAGUNEA:

- Euskara elkarteen kezkak eta beharrak jaso (bilerak eta abar)
- Ekintza plan zehatza antolatu eta aurrera eraman.
- Emaita: zerbitzu bat, formazioa edo informazioaren zabalpena.

URTXINTXA (SL saila):

- Formazio saioak:
 - Hartzaile taldearen ezaugarriak identifikatu (inguruko norbaiten laguntzaz)
 - Formazio saioa eman (talde dinamiken metodologia, hartzaileen iritziak jaso eta buelta eman)
- Formazio eskaintza hobetzeko hausnarketa, material didaktikoaren prestaketa (DVDak, argitalpenak,...)

3.2- LANEKO OZTOPOAK, GORABEHERAK ETA ZAILTASUNAK

Elkarriketarako galderei eta galdetegiari erantzun dieten teknikariek euren eguneroko lan jardunean topatu dituzten oztopoei buruz hitz egiterakoan aipatu





dituztenetako batzuk, bereizi ditugun hiru teknikari moten lanean topa litezke; eta azaldu diren zailtasunetako beste batzuk, edozein lanetara orokortu daitezkeela dirudi.

Esate baterako, *koordinazio aldetik sor litezkeen arazoak* aipatu dira: hitzorduak adosteko zailtasunak, aldatu beharrak, jendearen atzetik ibili beharra eta abar. Teknikari guztien lanari hedagarria den beste zailtasun bat *epe eta lanordu aurreikuspen zehatzak egiteak* suposatzen du. Hala ere, hau esperientziaren poderioz gainditzen den kontua bezala aipatu izan da.

Ia edozein lanpostutan sor litezkeen gorabeherak soziolinguistika arloko teknikariek ere jasan ditzaketela ikus liteke bildutako erantzun batzuetan. *Helburuak jartzerakoan jomuga altuegi jartzeak* hauetara ez iritsi eta frustrazioan erortzeko arriskua dakar, esan izan denez. Honez gain, edozein kausa dela medio lanerako motibazioan ematen diren beherakadak aipatu dira. Azkenik, lankideekin edo lanaren bitartez sortutako beste edozein *harremanetan sor litezkeen errietak eta elkar ulertze eza* aipatu da, nahiz eta esan bezala, hau ere lan guztietan topa litekeen oztopo bat izan.

3.2.1- Udaletako Teknikariak

Galdetegi eta elkarrizketen bidez udal bateko euskara teknikariak bere lan jardunean topa ditzakeen oztopoei buruz galdetzerakoan jasotako erantzunak ez dira elkarren artean hain ezberdinak izan, ikerketan kontsultatuko teknikarien udalen artean egituratze eta eguneroko lanari dagokionez ikus litezkeen diferentziak kontuan hartuta.

Hasteko, arloak berezkoa duen hutsune bat oso aipatua izan da: *hizkuntz ohitura, ezagutza eta jarreretan eragitera bideratutako ekintzen eraginkortasuna neurtzeko dauden zailtasunak*. Udaletik ekintza programa bakoitzak hartzailleengan izan duen eragina neurtzeko ezintasunak, hauen egokitasuna frogatzea ekiditen du, epe motzean gutxienez. Honen atzean formazio falta edo gaiari behar duen denbora ez eskaintzea apatzen ditu baten batek, baina gaia berez ez dela erraz neurgarria argi dago, orokorrean.

Elkarrizketa eta galdetegietan azaldu den beste kontu bat, *ekintzen arrakasta hartzaillearen esku dagoela* da; hau da, udaletik gizarteko sektore bati (gazteak,



merkatariak, kirolzaleak,...) nolabaiteko baliabideak eskainita ere hauei ematen zaien erabilpena egokia dela (edo erabiltzen ote diren ere) kontrolaezina dela. Askotan, gehienetan, udalak herritarren edo herriko eragileen esku jartzen dituen baliabide horiek egoki aprobeztatzea hartzaileek gaiarekiko duten kezka edo jarrerak baldintzatzen du.

Lanerako oztopo edo zailtasun bezala behin baino gehiagotan aipatua izan den beste *behar bat, udalaz gaindiko koordinazio gunearena da*. Udaletako teknikarien artean, beste herriren batean aurrez egina dutenaren susmoa izan arren, esku-hartzeko ekintza guztiak eurek hasieratik bukaerara sortu beharraren sentsazioa geratzen zaie. Ekintza asko, antzeko kasuetan behintzat, herri batetik bestera eramanda aplikagarriak izango lirakeela aipatu izan da, baina hau ez dela hala egiten oraingoz. Komunikazio falta sumatzen dute, nagusiki udalen artekoa, baina baita udal barrukoa eta herriko eragile ezberdinen artekoa ere kasu batzuetan.

Gabezia honi irtenbidea emateko udalen arteko esperientzia trukatzeko, planifikazio eta hausnarketarako gune izango lirakekeen foro edo koordinazio organoen sorrera faltan bota eta guztiz beharrezkotzat ikusten da. Euskal Herri mailan, bereziki arrakastatsuak suertatu diren esku hartzeak teknikarien artean transmititzearen funtzioa beteko lukeen gune baten eskaria dago. Hala eta guztiz ere, esan beharra dago behar honi neurri batean erantzute asmoz, eskualde mailan sortutako koordinazio gune batzuk badabiltzala lanean jaso ahal izan dugula ikerketako informaziotik, gutxienez alboko herrian egindakoa bakoitzaren herrian berriz egin beharra ekidin nahian.

Azaldu diren hutsune edo oztopoen artean beste batzuk, nagusiki baliabide faltak ezaugarritutako euskara zerbitzuetan azaldutakoak izan dira (Nafarroakoak batik bat). Lehenik eta behin baliabide falta bera aipatu da nekez gaindi daitekeen oztopo bezala. *Pertsonal aldetik eta baliabide ekonomiko aldetik dauzkaten mugek* guztiz baldintzatzen dute teknikari batzuen lan jarduna. Izan ere, praktikara eramateko aukerarik ezean ezer gutxitarako balio dute teknikariaren ekinak eta bere gaitasunek.

Bigarrenik, egoera honetan aurkitzen den udaletan bereziki nabarmena den arren, besteetan ere jazotzen den errealitate bat agertu da: *teknikariak bete beharreko funtzioen definizio falta*. Teknikariaren lana zehazki zertan datzan aurrez finkatua ez



egoteak, zenbait kasutan nagusiki itzulpengintzan jardun beharra dakar, esaterako. Udaleko euskara teknikariaren betebeharrak gutxieneko maila batean zehaztuta edukitzeak, udalaren barruan zein estatus izan beharko lukeen definitzea ekarriko lukeela aipatu da. Gainera, lehen aipatutako kasuetan, teknikarien lanak benetako euren helburuei begira (euskararen normalkuntza) bideratzea erraztuko luke. Azkenik, teknikariaren profil profesionala definitzeko aukera egongo litzateke, horretara iristeko formazio beharrak agerian utziaz.

3.2.2- Enpresetako Teknikariak

Enpresetako teknikariek euren lana egoki aurrera eraman ahal izateko topatu ditzaketen oztopoen artean, *lantzen duten gaiarekiko jarrera* da, zalantzarik gabe nagusia. Hasteko, euskaren normalkuntzari begira hitzunen jarrera, ezagutza eta ohituretan zuzenean eragin nahi izateak gizarteko eta lan munduko sektore batzuetan duen prestigio falta dago. Horrez gain, Euskara Planak enpresaren munduan ez direla lehentasunezko kontu bat aipatu izan da bildutako informazioan, enpresa guztiek lehentasuna ematen diotela etekin ekonomikoekin modu hertsia goan lotuta ikusten dituzten bestelako hainbat planei (kudeaketaren kalitatea,...). Honetaz aparte, enpresa barruan sektore jakin batek aplikatu nahi den planaren kontrako jokabidea eramatea jazo liteke (langile batzuk, zuzendaritzako batzuk,...).

Beste alde batetik, *langileek planak eskatzen duen guneetan parte hartzeko zailtasunak izatea* da teknikariek topa dezaketen beste oztopo bat. Zailtasun hauetan denbora falta izango litzateke nagusia, plan baten funtzionamendu egokirako ezinbesteko den parte hartzea eman dadin oztopoa.

Aipatutako bi zailtasun edo oztopo horiek, planaren garapena eta arrakasta arriskuan jar dezakete. Izan ere, teknikariak bere burua bakarrik aurki dezake. Elkarrizketa eta galdetegietan esan izan denez, planaren egiteko guztiak teknikariaren esku egotea ez da batere ona, alde batetik teknikariaren lan jardunari begira, baina bestetik planak hartzaileen parte hartzerik gabe eraginkortasuna galtzen duelako.

Euskara plan bat enpresa batean egoki garatu ahal izateko gorabehera garrantzitsua suposa dezakete *langile errotaioak*. Lan egonkortasunik ez izateak,



enpresa hauetan mota honetako planak garatzea asko zailtzen du aipatutakoaren arabera.

3.2.3- Jendarte Teknikariak

Jendarte teknikarien esparruan aztertu ditugun bi erakundeetako teknikarien erantzunen artean agertu da *langileen errotazioa* topatzen duten oztopoetako bat bezala. Topagunearen kasuan euskara elkarrekin ematen den langileria aldaketak aipatu dira eta urtxintxa eskolaren soziolinguistika sailaren kasuan, berriz, erakundeetan bertan ematen direnak. Errotazio honen atzean, baliabide falta eta honek eragindako lan baldintza eskasak egon daitezke galdetutakoen esanetan. Esperientziadun langile bat joaten den bakoitzean atzera pauso bat suposatzen du.

Topagunetik, gainera, epe *motzera egindako lanaren emaitzak ezin ikusiak* sor lezakeen segurtasun falta aipatu da, kontrapuntu bezala epe ertainera landutako gaien bilakaera positiboa ikusteak ematen duen motibazioa ere aipatu arren. Horrez gain, erakundearen kanpotik (beste erakundeetatik, euskalgintzatik...) heltzen diren zenbait lankidetzak eskaerak eraginda, aurreikusita ez egonagatik, lanaren planifikazioa moldatu beharra ere gertatzen dela esan izan da. Azkenik, *etengabeko egin nahiak eraginda hausnarketarako momentua aurkitzeko zailtasuna* sortzen duela ere jaso da.

Urtxintxa eskolako teknikarien aldetik, formazio saioen *arrakasta hartzailearen esku egoteak* ematen duen segurtasun falta azpimarratu da, lanean egon daitekeen gorabehera bezala. Formazio saioa jasotzen dutenen jarrerak eta interesak erabat baldintzatzen du honen baliagarritasuna eta. Horrez gain, formazio saioaren edukiak definitzeko hartzaile taldearekin harremana duen kontaktu batek emandako *erreferentziak guztiz zuzenak ez izateak, diagnostiko okerra egitea ekar lezake* eta honek, era berean, saioari komeni ez zen norabidea ematea. Hauetaz gain aipatu direnak, koordinazio eta antolakuntzan gerta litezkeen ohiko oztopoak dira, aurretik aipatuta daudenak.

Bi erakundeetan, arazo hauei aurre egiteko bide berdinak seinalatzen dira: alde batetik, baliabideak hobetzea (giza baliabideak eta ekonomikoak) eta bestetik, formazioaren bidez lanaren alderdi teoriko eta teknikoetan trebatzea.



3.3- TEKNIKARIAREN BEHARREZKO EZAGUTZA, GAITASUN ETA EZAUGARRIAK


Ikerketaren aztergai izan diren teknikari guztiek esandakoen arabera, soziolinguistika arloko teknikari idealaren profila osatzen joan gara. Udal bateko, lan mundua euskalduntzeko enpresa bateko edo jendartean eragitea bilatzen duen erakunde bateko teknikari “bikaina” izateko pertsona batek bildu beharko lituzkeen ezagutza, gaitasun eta ezaugarriak jaso ditugu. Hauek sailkatzeko, ezagutza teorikoak, gaitasun teknikoak eta ezaugarri pertsonalak bereizi ditugu. Profila osatzerakoan, elkarrizketatutakoen eta galdetegiari erantzundakoen ekarpenen zatirik handiena txertatu dugu, aztertu ditugun hiru esparruetan eraginkortasunez lan egiteko prestatuta egongo litzatekeen langilea irudikatzeko asmoz.

Hala ere, kontuan eduki behar da teknikari mota bakoitzak profilaren alderdi batzuk edo besteak landuago edukitzea eskatuko lukeela eta beste batzuk aldiz ez direla ezinbestekotzat jotzen.



3.3.1- Beharrezko Ezagutza Teorikoak

Ondorengo eskeman biltzen direnak dira soziolinguistika arloko teknikari bikainak bildu beharko lituzkeen ezagutza teorikoak.




Hiru multzo ezberdindu aipatzen dira nagusiki ezagutza teorikoetan: **soziolinguistika lanerako erabilgarri diren hainbat iturri teorikotatik eskuratutako ezagutza** biltzen duena (TEORIA NAGUSIAK), **euskararen, bere testuinguruaren eta normalkuntzaren alde egiten duten eragileen inguruko ezagutza** (EUSKARA/ EUSKAL HERRIA) eta **munduan zehar dauden eta egon izan diren kasu eta esperientzien artetik Euskal Herriko ikuspuntutik interesgarri gerta litezkeen ingurukoak** (BESTE ESPERIENTZIAK).



3.3.2- Beharrezko Gaitasun Teknikoak

Gaitasun teknikoak dagokienez, azpiko eskeman jaso dira teknikari bikainak izan behar lituzkeenak bezala identifikatutakoak.




Hiru multzo nagusi topa ditzakegu: ***bulego lanean aritzeak eskatzen dituen gaitasunak*** (BULEGOKO LANAK), ***soziolinguistikan espezifikoki erabiltzen diren metodologietan trebakuntza*** (SOZIOLINGUISTIKA ARLOKO LANERAKO TEKNIKAK) eta ***koordinazio eta komunikazio egokirako gaitasunak*** (KOORDINAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA) biltzen dituenak.

Soziolinguistikan erabiltzen diren metodologiei buruzko multzoak jatorria beste diziplina akademikoetan duten teknikak osatzen dute, baina elkarrekin soziolinguistika lanerako metodologia espezifikoen taldea osatzen dutela esan liteke.



3.3.3- Beharrezko Ezaugarri Pertsonalak

Teknikariaren lana egoki betetzeko ondorengo eskeman biltzen diren ezaugarri pertsonalak izatea komenigarria litzateke, elkarriketa eta galdetegi bidez jasotako informazioaren arabera.



Ezaugarri pertsonalak, bi multzo nagusitan bilduta ageri dira: **nortasun edo izaerazkoak** (IZAERAZKO EZAUGARRIAK) alde batetik eta **lanaren aurrean eduki beharreko jarrerari** dagozkionak (JARRERA), bestetik.



3.3.4- Teknikari Mota Bakoitzarentzat Beharrezkoenak

Atal honetan, teknikari mota bakoitzean, bere lanerako duten garrantziaren arabera beharrezko ezagutza, gaitasun eta ezaugarrien artean lehenetsiak aztertu ditugu. Kontuan hartu behar da, sailkapen hauek azterketa kualitatibo batetik ateratakoak direla. Aztertutako teknikariek euren lanaren inguruan dituzten ikuspuntuak jaso ditugu eta elkarrekin alboratuz teknikari mota bakoitzean aipatu diren joera nagusiak aukeratu. Elkarrizketatu hauek, ahalik eta iritzi kualifikatuena izan zitezen ahalegindu da Soziolinguistika Klusterra, baina ukaezina da sektorean ematen den kasuistikaren aniztasuna eta azterketaren mugak kontuan hartuta, teknikari bakoitzaren kasuan bere lanerako beharrezko ezagutza, gaitasun eta ezaugarriez izan ditzakeen sententziak kasu bereziak izango direla.

UDAL TEKNIKARIAK

Udal teknikariek egindako kontrasteen, pertsona bat bere lanean ongi ari dela esan ahal izateko gehien eragiten duten ezaugarriak pertsonalak izango lirateke. Urte askotan zehar langileen ekimenean eta inplikazioan oinarrituz lan egin den sektore bat dela azpimarratu izan da; eta neurri batean hala izaten jarraitzen duela (udal batzuen kasuan beste batzuetan baino nabarmenago).

Lanerako garrantziari dagokionez, ezaugarri pertsonalen ostean ezagutza teorikoak aipatu dira. Soziolinguistika arloan dauden teoria guztietan sakontasun handiarekin jantzita egotea beharrezko sumatzen ez den arren, Euskal Herrian gehien erabiltzen diren autore/teoria gutxi batzuk ("2,3,4") ezagutzea beharrezkoa dela esan izan da. Autore horien eskema eta kontzeptuak eguneroko txostenetan agertzen ez diren arren, gaien inguruko ikuspegia ematen dutela aipatu da eta sarritan, modu inkontzientean aplikatzen direla hartzen diren neurri eta erabakietan.

Horrez gain, ezagutza teorikoekin jarraituz, Euskal Herrian aurrera eramanez izan diren edo gaur egun aurrera eramanez izan diren esperientzien berri izatea ezinbestekotzat jotzen da. Honela, norberaren udalerrarentzat erabilgarriak izan litezkeen ekinbideak edo ondorioak jasotzea lana aberasteko modutzat hartzen da.



Lanerako behar diren gaitasun teknikoei dagokienez, bileren dinamizazioa eta bakoitzaren lanaren antolaketa azpimarratu dira ezinbestean menperatu beharrekoak bezala. Bilerak dinamizatzen jakitea beharrezkoa da, bilerak udal teknikariaren egunerokotasuneko lan egiteko moduan presentzia handia dutelako. Bakoitzaren lanaren antolaketari ematen zaion garrantzia, erlatiboa izan liteke, baina bereziki garrantzitsua da bakarrik lan egiten duten teknikarien edo euskara zerbitzu handiago baten buruan aurkitzen direnen kasuetan. Izan ere, eginkizunetan aniztasun handiagoa izan ohi dute egoera honetan aurkitzen diren langileek, ondorioz, baita antolatzeko behar handiagoa ere.

ENPRESETAKO TEKNIKARIAK

Enpresetako teknikarien artean, ezagutza eta gaitasunen garrantziari buruz galdetzerakoan zalantza gutxi agertu dituzte: esan liteke ia aho batez gaitasun teknikoen aldeko hautua egin dutela. Gaitasun teknikoaren multzoan gehiago sartuta, Euskara planaren prozesua osatzen duten egitekoak (diagnosia, plangintza, jarraipena,...) burutzen jakitea hartzen da funtsezkoena bezala. Honen harira, teknikari hauen enpresek (EMUN, ELHUYAR, ARTEZ,...) teknika eta metodologiari dagokionez jarraitzen dituzten irizpideak oso zehaztuta dituzte. Horregatik, bakoitzeko teknikarien kasuan bere enpresan jarraitzen den lan egiteko sistema ezagutzea da garrantzitsuena.

Teknikariaren lanerako funtsezkoena bezala gaitasun teknikoaren jabe izatea jotzeaz gain, esparru honetan jasotako iritziak bat datoz beste puntu batean ere. Langile berriak kontratatzerako orduan gehien begiratzen diotena hautagaien ezaugarri pertsonalak dira: nortasunari dagokionez sumatzen zaizkion bereizgarriak eta erakusten duen jarrera. Izan ere, lehen esan bezala, arlo honetako enpresa bakoitzak bere lan-metodologia propioa erabiltzen duela eta honen ezagutza teknikarien gaitasunetan funtsezkoena dela irizten diotenez, erakundeak bere gain hartzen du langile berriak hauetan formatzearen ardura. Ezaugarri pertsonalak, aldiz, formazio bidez lantzeko aukera gutxiago ikusten dute, horregatik hartzen dute bereziki kontutan aspektu hau jende berria kontratatzerakoan.



JENDARTE TEKNIKARIAK

Jendarte teknikarien laneko formazio premiak ikertzeko erabili ditugun bi erakundeetan, euren lanerako funtsezkoena zenbait ezaugarri pertsonalen jabe izatea dela jaso dugu. Gainera, kasu batzuetan, izaera eta jarrera aldetik gutxieneko parametro batzuetan sartzen ez diren pertsonentzat ezin buruturiko lanak direla esan izan dute. Horregatik, besteak beste, lanerako ekimena eta jarrera positiboa nabarmentzen dira jasotako erantzunen artean ezaugarri garrantzitsu bezala.

Urtxintxa eta Topaguneak langileak hartzerakoan jarraitzen dituzten irizpideetan ere, bat egiten dute enpresetako teknikariek: ezaugarri pertsonalak dira hautagaietan gehien begiratu eta baloratzen dituztenak. Hauek ere, errazago ikusten dute langileari beharrezko baliabide teoriko eta teknikoak ematea bere izaera eta jarreran eragitea baino.

Hori kontuan izanik, teknikari dagokionez, Urtxintxan berebiziko garrantzia ematen diote formazio saioetan erabiltzen dituzten talde dinamika parte hartzaileak menperatzeari. Gainera, aisialdia edo jolasen munduarekin erlazionatutako aurre-erperientziaren bat izatea hauetaz ongi jabetzeko nahitaezko pauso bezala ikusten da.

Topaguneari dagokionez, taldean lan egitea oso ohikoa da, eta talde lanean eroso sentitzea eta ongi moldatzea garrantzitsu ikusten dute. Egun, lanean horretarako zenbait teknika aplikatzen badituzte ere, ezagutza horietan sakontzea ez lukete gaizki ikusiko.

Teoria mailan, bi kasuetan *Txepetxen* teoriaren ideia nagusiak ezagutzearekin teknikariaren lana betetzeko nahikoa dela jaso da, beraz, teknikari bikainaren profileen berezi ditugun hiru multzoetatik, teoriari dagokiona da garrantziari dagokionez pisu gutxien ematen diotena.



3.3.5- Teknikarien formazioaren hutsuneak

Udaletako teknikarien formazio hutsuneei dagokienez, arlo teknikoan kokatu ditugun zenbait gaitasun agertu dira gehien bat. Udal teknikari bezala lan egiten dutenek, gaitasun teknikoetan ikusten dute euren burua formatzeko beharrik handiena, zehatzago esanda, bakoitzaren lanaren *PLANIFIKAZIOA ETA ANTOLAKETAN* eta *TALDE LANERAKO TEKNIKETAN* (bileren dinamizazioa,...). Bi aspektu hauek aipatzean, bereziki esperientzia handiko teknikarien aldetik, nabarmentzen den zerbait da gaur egun euren lanean funtzio horiek betetzen dituztela, hau da, badutela gaitasun hori, baina zati handi batean esperientziaren bidez eta intuizioari jarraituz eskuratu dutela. Hori dela eta, alor horretan formazioa jasotzeko beharra sumatzen da.

Enpresetako teknikariek formazio mailan ikusten dituzten hutsuneei buruz galdetzerakoan jaso diren erantzunen arabera, arlo teorikoa ikusten dute besteen ondoan zertxobait baxu. Egunerokoan erabiltzen dituzten plangintzarako tekniken atzean zein oinarri teoriko eta zein helburu orokor azaltzerakoan egon daiteke zenbait teknikariren ahulunea. Faltan botatzen dute teknikariak mundu mailako eta Euskal Herriko *SOZIOLINGUISTIKA ARLOKO TEORIA NAGUSIetan* neurri handixeagoan jantzita egotea.

Jendarte teknikariei dagokienez, Urtxintxan, barne formazio mailan gutxiengo ezagutza soziolinguistikoak langileen eskura jartzearen beharra asetzen dutela ziurtatutzat dute. Hala ere, alor honetan ikusten dute bi erakundeetako teknikariek formazio hutsunea. *SOZIOLINGUISTIKA ARLOKO TEORIA NAGUSIAK* eta *EUSKARARI ETA NORMALKUNTZAREN GAIARI BURUZKO DISKURTSOAK* (euskal gizartean aurki daitezkeenak) identifikatuta edukitzea da faltan botatzen dutena. Azken hau gehiago landuz gero, euskararen normalkuntzaren helburuarekin lerratuta ez dauden diskurtsoekin topo egiterakoan hauei buelta eman eta argumentuen bidez erakartzeko erraztasuna irabaziko litzatekeela esan izan da.



3.3- LABURPENA

Teknikari bikainaren profila

EZAGUTZA TEORIKOAK: Teoria nagusiak, Euskara eta Euskal Herria eta Beste Esperientziak

GAITASUN TEKNIKOAK: Bulego lana, Soziolinguistika arloko lanerako teknikak eta Koordinazioa eta komunikazioa.

EZAUGARRI PERTSONALAK: Izaerazko ezaugarriak eta Jarrera.

UDAL TEKNIKARIAK:

Beharrezkoenak:

- 1- Ezaugarri pertsonalak
- 2- Ezagutza teorikoak
- 3- Gaitasun teknikoak

Hutsuneak:

Gaitasun teknikoetan:

- a) Planifikazioa eta antolaketa
- b) Talde lanerako teknikak (bileren dinamizazioa)

ENPRESETAKO TEKNIKARIAK:

Beharrezkoenak:

- 1- Gaitasun teknikoak
- 2- Ezaugarri pertsonalak
- 3- Ezagutza teorikoak

Hutsuneak:

Ezagutza teorikoetan:

- a) Soziolinguistika arloko teoria nagusiak.

JENDARTE TEKNIKARIAK:

Beharrezkoenak:

- 1- Ezaugarri pertsonalak
- 2- Gaitasun teknikoak
- 3- Ezagutza teorikoak

Hutsuneak:

Ezagutza teorikoetan:

- a) Soziolinguistika arloko teoria nagusiak
- b) Euskarari eta normalkuntzaren gaiari buruzko diskurtsoak



3.4- FORMAZIOAREN EGOERA: eskaintza eta gabeziei irtenbideak

3.4.1- Formazio Eskaintzaren Balorazioa

Gaur egungo soziolinguistika arloko ikasketa eskaintzaren balorazioa egiterakoan, informazio iturri gisa erabili ditugun teknikariak bat datoz HIZNET eta LINGUANET direla beste guztiaren gainetik kontuan hartzekoak. Izan ere, *unibertsitateetan ematen den eskaintza (ikasgai asko hautazkoak) teknikari lanerako prestatzeari begira nahikoa ez denaren* sentsazioa zabaldua dago. Gehienez ere gaiarekiko interesa pizteko baliagarri suertatu daitezkeela esan izan da, soziolinguistikara lehen hurbilpen bat direla. Honekin loturik, *soziolinguistikari buruzko kontzeptu batzuk argitzera bideratutako edukiak oinarrizko hezkuntzan txertatzea* komenigarria litzatekeela esan da elkarrizketatutakoren baten aldetik, ikasleek euskararen egoera baloratzekoan gutxienezko oinarri batzuk eduki ditzaten eta gaiarekiko interes pizgarri papera joka dezan.

Bi ikastaro horiei dagokionez, balorazioa nahiko positiboa izan dela esan beharra dago. Udal teknikarien aldetik, enpresetakoetatik eta Topagunekoetatik, euren beharrak teoria mailan gutxienez HIZNET jasotzearekin asea geratzen direla esan izan da. Urtxintxatik, HIZNETen gai teorikoak euren beharretarako gehiegizko sakontasunez lantzen direla aipatu da, hau da, ezagutza teorikoak soberan jasotzen direla.

HIZNET baloratzekoan faltan botatzen dena, *esperientzia errealekiko lotura* da. Alde batetik, normalkuntzaren arloan eman diren esperientzia arrakastatsuei buruzko ezagutza ematea eskatzen da, emaitza positiboak lortu dituzten hainbat proiekturen kasuak eta hauetan jarraitutako prozesuak sakonean aztertzea. Beste alde batetik, nolabaiteko praktika aldiren bat (aukerakoa balitz ere) ikastaroarekin lotzeak gaur egun gradu-ondokoak eskaintzen duena osatu egingo lukeela jaso da hainbat elkarrizketaturen eskutik, testuetan ikasitakoan errealitatean nola gauzatzen den ikusteko aukera emanez.

LINGUANETi dagokionez, lan munduko teknikariek egoki ikusten dute; euren egitekoetan zuzenean aplikagarria den jakintza eskaintzen du eta. Hala ere, HIZNETen



beste sakontasun maila batera heltzen dela da bildu den sentsazio orokorra, lan praktikora bideratutako ezagutzez gain, hauen atzean dauden oinarri teorikoak ere eskaintzen dituela.

Bi ikastaro hauek online izateak suposatzen duen baldintzapenaren inguruan galdetuta, alde onak eta txarrak ikusten zaizkio teknikarien aldetik. Positiboaren artean, lan jardunarekin bateratzeko aukera nabarmentzen da. Alderdi negatiboetan, parte hartzerako aukera gutxi ematen dutela dioten iritziak daude. Hala ere, gabezia horri konponbidea eman nahian azken aldia (HIZNETen batez ere) hartzen ari diren neurriak eskertzen dira (foro bidezko ariketak, kafetegia,...) eta saio presentzialen beharrezkotasuna azpimarratzen da. Ikastaroak online izateak dakarren beste ondorio bat, ikastaroaren baliagarritasuna ikaslearen eskuetan uztearena dela esan da, bakoitzak egiten duen lanaren arabera edukiak maila batean ala bestean barneratuko dituelako.

Soziolinguistika Klusterrak egindako soziolinguistika arloko formazio eskaintzaren zerrendari, urtero hainbat erakundetatik antolatzen diren jardunaldi, ikastaro, hitzaldi eta antzekoak gehitzearen beharra aipatu izan dute. Honelakoek, bakoitzaren oinarriko formazioa (unibertsitate ikasketak, HIZNET,...) pixkanaka-pixkanaka gai zehatzei buruz janzten joateko oso lagungarriak izaten direla bildu dugu. Horrez gain, honelako lekuetan, ikasketa formaletan ez bezala, praktikara eramandako esperientzien trukaketarako aukera handiagoa izaten dela nabarmendu da alde positibo bezala. Bestalde, batzuetan magistralegiak izateak eta jendearen parte hartze faltak atera ahal litzaien etekin guztia ateratzea zailtzen duela uste dute batzuk.

3.4.2- Formazioa teknikarien erakundeetan

Udal teknikariei dagokienez, nagusiki bakoitzaren esku geratzen da formazio aldetik behar duten neurrian janzten joatea. Bakoitzak lanpostua eskuratzerakoan dakarren formazio akademikoa urtean zehar hainbat erakundetatik eskaintzen diren jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroen bidez aberastea izaten da honetarako jarraitzen den bidea, nagusiki.

Lan mundua euskalduntzen diharduten enpresetako teknikariak, euren erakundetik bideratzen dira LINGUANET eta HIZNET ikastaroetara kasu batzuetan, nahiz eta gero eta gehiagotan, ikastaro hauetakoren bat aurrez eginda heltzen diren





langile hautagaiak enpresara. Era berean, lehen aipatu bezala, sektore honetako enpresetan berebiziko garrantzia ematen zaio erakundeak finkatuta daukan lan egiteko sistemari eta horretarako jarraitu beharreko jardunbideei. Hori dela eta, enpresa bakoitzean lan egiteko duten moduan (ikerketa ekintza parte hartzailea, proiektuen kudeaketa,...) langileak barne formazio bidez formatzea bere gain hartzen dute. Barne formazio hau, gaitasun teknikoetan zentratzen da, orokorrean; teoria arloko ezagutzetan formatzeko, ikastaro eta antzekoetara bideratzen direlarik langileak.

Jendarte teknikarien lana aztertzeke kontsultatu ditugun bi erakundeen kasuan, bestelakoa izaten da jokamoldea. Urtxintxaren soziolinguistika arloko teknikari baten formazioa, gehien batean, lan honetan hasi aurretik izandako esperientzietan oinarritzen dela jaso dugu. Langile berri bat hartzerakoan begirale ikastaroa egin izana eta begirale bezala nolabaiteko esperientzia izatea ia ezinbesteko baldintzat jotzen dituzte, hauek ematen duten ezagutzak jasotzea bermatzen duen bestelako eskaintzarik ez dagoela aipatu izan da eta. Honela, neurri handi batean ziurtatu egiten duten langileak erabili beharko dituen metodologia batzuk menperatzen dituela (taldeen dinamizazioa,...). Soziolinguistikari dagokion oinarri teorikoarena, barne formazioaren bidez asetzen duten beharra da, eskaintzen diren ikasketetan (HIZNET) ematen dena behar dutena baino gehiago dela iritzita, lanaren norabideak garbi edukitzea ziurtatzen duen gutxieneke ezagutza batzuk transmititzen dira erakunde mailan.

Topagunean, positiboki baloratzen da langile berri batek soziolinguistika arloko ikasketaren bat eginda edukitzea, baina ez da ezinbesteko baldintza. Lanarekin bateragarriak diren formazio saio labur eta trinkoak dira teknikariak ezagutza aldetik janzteko erabiltzen den bidea. Bazkideei dagokienez, Topagunearen “sustapen taldeak” landutako moduluak ematen dituzte, euskara elkarteetako kideei soziolinguistikari buruzko eduki batzuk eta euskara elkarten filosofia eta ibilbidearen esperientziak transmititu asmoz.



4- ONDORIOAK: formazioak bete beharreko funtzioak eta betetzen dituenak.

Soziolinguistika alorreko teknikarien lanak zertan datzan, zein arazo eta gorabeherarekin topo egiten duten, hauek gainditzeko beharko lituzketen ezagutza, gaitasun eta ezaugarriak zeintzuk diren eta horietara heltzeko zein aukera dauzkaten aztertzeak, ondorengo ondorio nagusi hauetara ekartzen gaitu:

- 1- Soziolinguistika arloan aritzen diren teknikarien artean sartzen ditugunek **talde heterogeneoa** osatzen dute. Bakoitzak bere lanean egin behar dituenak eta horretarako beharrezko zaion formazioa ezberdina da, bai bereizi ditugun hiru multzoen artean, baita multzo berdinean kokatzen diren teknikarien artean ere. Azterketa honetan, **teknikarien formazioan egon daitezkeen premia komunak** identifikatzen saiatu gara aukeratutako batzuen iritzietan oinarrituz, kasu guztiei orokortzeko ezintasuna presente izan dugularik.
- 2- Gaur egun soziolinguistika arloko teknikari bezala lan egiteko beharrezko gaitasunen jabe izateko, **ez da nahikotzat jotzen unibertsitateetan dagoen eskaintza.**
- 3- Erakundeek eskaintzen duten barne formaziorik gabe teknikariaren lanean funtsezkoen jotzen diren ezagutza, gaitasun eta ezaugarrien jabe izatera iristea, ezinezkotzat ikusten da. Soziolinguistika arloko **formazio eskaintzak dituen mugek, besteak beste, eragiten dute barne formazioak duen garrantzia izatea.**

Azpimarratzeko modukoa da lan munduko teknikarien formazioa euren enpresek bere gain hartzea ezinbestean egin beharrekotzat daukatela, izan ere, ez dute aurreikusten langile berri bat erakundera lana egoki betetzeko beharrezko ezagutza, gaitasun eta ezaugarri pertsonalekin heltzearen aukera.

- 4- Teknikarien lana aztertzerakoan bereizitako hiru esparruetan (udal, enpresa eta jendarte teknikariak) **garrantzi aldetik pisu gutxien ematen zaien gaitasunetan aurkitzen da hutsune gehien.** Esan bezala, ez formazio



eskaintzak funtsezko beharrak asetzen dituelako, neurri handi batean barne formazioaren bidez egiten dutelako, baizik.

- a. Udal teknikarien kasuan, lanerako ezaugarri funtsezkoenak izaera eta jarreraren arlokoak jotzen dira (pertsonalak), hauen ostean oinarri teorikoak eta hirugarrenik gaitasun teknikoak. Hutsune gehien, azken honetan aurki daitezkeela aipatu izan da. Zehatzago esanda, eguneroko lanaren zati handi bat hartzen duten **bileren dinamizazioan (TALDE LANERAKO TEKNIKAK)** eta esfortzuen eraginkortasuna areagotzeko erabilgarri gerta litekeen **PLANIFIKAZIOA ETA ANTOLAKETA** arako formazioan.
 - b. Enpresa mundua euskalduntzen lan egiten duten teknikarien artean, euren jardunak eskatzen dituen gaitasun teknikoak menperatzea da garrantzi gehien ematen dioten puntua, zenbait ezaugarri pertsonal zehatzen jabe izatearen aurretik. Hutsuneak, aldiz, lanaren oinarri bezala erabiltzen diren **SOZIOLINGUISTIKA ARLOKO TEORIA NAGUSI**en ezagutzan aurkitzen direla identifikatzen dute.
 - c. Jendarte teknikarien esparruan ere, nahitaezkoak jotzen dituzten ezaugarri pertsonal eta gaitasun teknikoetako beharrak neurri handi batean aseta ikusten dituzten arren, arlo teorikoan ikusten dute, neurri batean behintzat gabezia, **SOZIOLINGUISTIKA ARLOKO TEORIA NAGUSI**etan eta **EUSKARARI ETA NORMALKUNTZARI BURUZKO DISKURTSOAK** identifikatzeari dagokionez, gehien bat.
- 5- Gaur egun soziolinguistika arloan dagoen ikasketa nagusiari (**HIZNETI**) dagokionez, **teoria mailan teknikariarentzat beharrezko ezagutzak transmititzen dituela** irizten diote. Hala ere, praktikotasunarekiko lotura zuzenagoaren beharra, orokorrean aipatua izan den gabezia bat da. Batzuetan praktika aldi epe baten proposamenarekin lotu izan da, beste batzuetan, soziolinguistika arloko esku hartzearen esperientzia zehatzen azalpen eskaerarekin.



Metodologiari dagokionez, lanean dabiltzanentzat dituen abantailak azaldu dira. Lanerako prestatu nahi duen ikaslearen ikuspuntutik, parte hartze zuzenagoa eskatuko lukeen beste metodologia edo formaturen bat hobesten duten iritziak ere bildu dira. Hala eta guztiz ere, norabide honetan emandako pausoak positiboki baloratuak izan dira.

- 6- Aztertutako hiru teknikari moten jardunean bakoitzaren ezaugarri pertsonalek garrantzi handia dutela jaso ahal izan dugu elkarrizketa eta galdetegi bidez. Hala ere, ezaugarri hauek aurrez eskatzen dituzte lan mundua euskalduntzeko enpresek eta jendarte teknikarien erakundeek (Urtxintxa eta Topagunea) jendea kontratatzerako orduan. Izan ere, **alderdi honetan hutsuneak dituen pertsona bati formazioa ematea, bestelako gaitasun eta ezagutzatan hutsuneak dituen bat formatzea baina zailagoa** dela ikusten dute. Soziolinguistika arloko ezagutza eta gaitasunak transmititzeaz gain, formaziorako metodologiaren bidez etorkizuneko teknikarien jarrerazko eta izaerazko ezaugarrietan eragitea helburutzat jartzea izan liteke auzi horren irtenbidea.
- 7- Teknikarien formazio premiak asetzea alde batera utzita, gizarteko edo lan munduko beste sektore batzuetako hartzaileei begira **soziolinguistikako zenbait kontzeptu eta teoriaren oinarriak transmitituko lituzkeen ikastaro edo bestelako eskaintzaren bat faltan botatzen da**. Alde batetik, soziolinguistikaren alorrean lanean ari diren erakundeek hainbat erabilpen eman ahalko lizkiokete: enpresetako teknikari hasi berrien oinarrizko formazio bezala, euren lanerako HIZNETen ematen diren edukiak gehiegizkoak direla irizten diotenentzat, Euskara elkarteetako langileen formaziorako,... Baina horrez gain, gutxieneko kontzientzia hartzea gizartean ahalik eta gehien zabaltzen lagunduko luke formatu arineko eskaintza batek.
- 8- Azkenik, gaur egun dagoen eskaintza osatzen duten ikasgai eta ikastaroetan gaiak modu teorikoegian, abstraktuegian, ematen direla jaso dugu. Teknikarien etengabeko formaziorako, **normalkuntzaren arloan eman diren esperientzia arrakastatsuei buruzko ezagutza** ematea eskatzen duten iritziak jaso ditugu, emaitza positiboak lortu dituzten hainbat proiekturen kasuak eta hauetan jarraitutako prozesuak sakonean aztertzea.



5- ONDORIOEN HAUSNARKETA ETA EKARPENAK: Soziolinguistika Klusterraren Jardunaldiko Tailerra

2008ko otsailaren 29an Donostian Soziolinguistika Klusterraren Jardunaldian burutzekoa zela probestuz, bertan aurrera eraman ziren tailerretako batean Formazio Premien azterketak emandakoaren inguruko hausnarketa ariketa batzuk burutu ziren. Tailerrak 75 minutuko iraupena izan zuen eta 45 lagunek parte hartu zuten bertan. Hauen artean 20 udal eta mankomunitateetako euskara teknikariak ziren; beste 25en artean, berriz, lan munduko teknikariak, euskara elkarteetako kideak, hezkuntza munduko langileak eta bestelako erakunde publikoetako ordezkariak aurki zitezkeen.

Baldintza hauek kontuan hartuta, bi lan taldetan banatu ziren bertaratutakoak. Polinizazioaren dinamika deitutakoaren bidez, formazio premien azterketak emandakoaren gainean ariketa bana egin zuten lan talde hauek 40 minututan zehar eta bukaeran, bakoitzean agertutakoak parte hartzaile guztiei azaldu zitzaizkien.

a) OINARRIZKO FORMAZIOAREN ARIKETA (OF)

Ariketa honen oinarrian, formazio premien azterketan kontsultatutakoen artean jasotako behar bat aurkitzen da: soziolinguistikara eta arlo honetako lanetara sarrera erraztuko lukeen oinarrizko formazio eskaintza baten beharra. Honek, unibertsitate mailan ematen direnek (HIZNET) adina sakondu gabe, funtsezko baliabide batzuk eskainiko lizkioke hartzaileari eta hizkuntza normalkuntzaren inguruan gizartearen kontzientzia hartzea zabaltzen laguntzeko balioko lukeela ere jaso zen.

Jardunaldiko tailerrean egin beharrekoa, teknikari idealaren profilean aipatutako ezagutza, gaitasun eta ezaugarrien artetik oinarrizko formazioak bereziki landu beharrekoak aukeratzea eta honen inguruko hausnarketa egitea zen. Ondorengo eskeman biltzen dira parte hartzaileek azpimarratutakoak:



EZAGUTZA TEORIKOAK

- Soziolinguistika arloko teoria nagusietara sarrera bat.
- Euskararen egoera zehatza ezagutaraztea.
- Normalkuntzan eman diren esperientzien berri zabaltzea (arrakastatsuak soilik edo baita porrot egin dutenak ere)
- Beste ezagutza arloetatik erabilgarriak izan daitezkeen oinarri teoriko batzuk: gizarte psikologiakoak, enpresen kudeaketakoak,...

GAITASUN TEKNIKOAK

- Plangintza baten prozesuko atal guztiak burutzeko metodologia: diseinua, jarraipena, ebaluazioa,...
- Bileren dinamizatorako teknikak (bereziki jendea motibatzeakoak). (Metodologia parte hartzailearen bidez?)
- Laneko eginbeharren planifikazio eta antolaketarako teknikak: lehentasunak ezartzeakoak, lanak aukeratu eta baztertzeakoak,...

EZAUGARRI PERTSONALAK

- Komunikazio gaitasuna: edozein lanketa gizartean zabaltzeko, bileretarako,...
- Inplikazio positiboa eta irekia: lanaren helburuekiko atxikimendua eta norberaren aldetik jartzeko prestutasuna.
- Sormena: ezusteko egoerei aurre egiteko, aurrez probatu gabeko esperientziak martxan jartzeko,...
- Pazientzia: lan harremanetarako, esku hartu nahi den kolektiboarekiko,...

b) AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENEN ARIKETA (AB)

Aurrera begirako proposamenen ariketaren barruan, bi pauso bereiz zitezkeen. Alde batetik, formazio premien azterketak emandako ondorio nagusiak garrantziaren arabera puntuatu ziren eta puntuazioen arabera sailkapen bat osatu zen. Gero sailkapen hau eztabaidatu zen. Dinamika osoa kontuan hartuta, hiru ondorio nabarmendu ziren guztien artean:



- Enpresa eta erakundeak barne formazioaren bidez unibertsitateetako eskaintzaren gabeziak gainditzen saiatzen direla.
- Teknikarien ezaugarri pertsonaletan eragitea bestelako gaitasun eta ezaugarrietan eragitea baino zailagoa dela, baina arlo honetan formazio eskaintza baterako beharra badagoela.
- Arlo bakoitzean burututako esperientziak trukatu eta arrakastara eraman duten klabeak teknikarien artean zabaltzeko koordinazioa bultzatzeko beharra.

Beste alde batetik, ondorio nagusi hauek irakurrita aurrera begira bultzatu beharreko ekimenak proposatu zituzten tailerreko parte hartzaileek. Lau multzo nagusitan bildu daitezke paneletan bildu ziren proposamenak:

- Soziolinguistika arloko formazioaren gidaritza norbaitek hartu beharko luke (HPS, ENAI, EEP, Soziolinguistika Klusterra, Unibertsitateak,...).

Eskaintza aberastea eskatzen da, behar ezberdinei erantzuteko:

- a) Gradu ikasketa batzuen sorrera
 - b) HIZNETen eguneratzea
 - c) Modulu labur eta aplikatuak (lanean ari direnen formazioa berritzeko/ birziklatzeko)
 - d) Teknikariez gain, beste eragileentzat prestakuntza (Oinarrizko formazioa)
- Teknikarien ezaugarri pertsonaletan dauden beharrak zehatzago detektatu eta hauetan eragitera bideratutako formazio programa bat sortzea proposatzen da.
 - Esperientzien inguruko informazio trukea areagotzea:
 - o Esperientzien ebaluaziorako sistema bateratua sortzea.
 - o Esperientzien arrakasta edo porrotaren berri zabaltzea eragileen artean (posible ote den zalantza)
 - o Esperientzia arrakastatsuetan jarraitutako prozedurak zabaltzea (jardunaldiak, liburuak, internet,...) Besteentzat erabilgarri izan litezkeen baliabideak eskaintzea.

Esperientzia arrakastatsuen bankua sortzea: normalkuntzaren arlo bakoitzean arrakasta izandako ekimenak batera jasoko lituzkeen gunea.



- Barne formazioa neurri batean egituratuta duten erakundeen arteko koordinazioa areagotzeko beharra azpimarratu da eta erakunde horiei honetara bideratutako pausoak ematea proposatzen zaie.



6- ERANSKINAK

6.1- GALDETEGIA

SOZIOLINGUISTIKA ALORREKO TEKNIKARIEN FORMAZIO PREMIAK

Soziolinguistika Klusterrean, soziolinguistika arloko formazioaren inguruko azterketa egiten ari gara. Batetik, egungo unibertsitate mailako ikasketetan soziolinguistika arloko formazioaren eskaintza aztertu dugu. Bestetik, soziolinguistika arloko teknikariek dituzten formazio premiak aztertu nahi ditugu. Azkenik, bi azterketa horiek eginda, aurrerabideak nondik jo beharko luketen gogoeta egiteko.

Honetan ordea, Soziolinguistika Klusterraren lan egiteko moduari jarraiki, beharrezkoa ikusten dugu inplikaturako subjektuen parte hartzea. Formazio eskaintza hori osatzen dutenak eta arloko teknikariak proiektu honen protagonista izan behar dutela uste dugu, horregatik, bi azterketa horien emaitzak guztion artean aztertzeko asmoa dugu.

Galdetegi honetan jasotako informazioa, ondoren, aurrez-aurre egin asmo ditugun elkarrizketekin osatuko dugu, hortaz, abiapuntuko informazio ahalik eta osatuena eskuratzeko, lanaren emaitza aberastu eta erraztuko digu. Gure kalkuluen arabera ordu eta erdi inguru hartuko dizu eman dizugun lanak. Hortaz, eskertuko genizuke, ahalegin txiki bat egin eta galdetegia betetzeko behar duzun denbora tartea hartzea, zure ahalegina guztiontzat etekina izango baita.

DATU PERTSONALAK

Enpresa:	Adina:
Lanpostua:	Sexua:
Helbide elektronikoa:	Lanpostu horretan daramazkizun urteak:

Azaldu ezazu zure orain arteko formazio ibilbidea (Curriculum laburtua):

LANPOSTUARI BURUZKO DATUAK

1. Deskribatu ezazu, labur, zein den zure lana?

2. Azaldu zein den zure lanaren helburua? (zein emaitza eskuratzeko dituzun, erakundeari egiten diozun ekarpena)



3. Adierazi zure lanean, zein tresna (gailu, teoria, teknika, metodologia) erabiltzen dituzu

4. Adierazi zure lana "bikain" betetzeko langile batek izan behar lituzkeen gaitasunak zeintzuk diren:

a. Ezagutza teorikoei dagokionez

b. Ezagutza teknikoak (teknikak, metodologiak, trebetasunak...)

c. Ezaugarri pertsonak (jarrerak, baloreak, arauak...)

5. Nola formatzen da langile bat zuri dagokizun lana ongi "bikain" betetzeko moduan? Zein esperientzia sekuentzia izan behar lituzke?

6. Zure lana betetzerakoan, zeintzuk dira sortu litezkeen arazo egoera nagusiak? Arazo egoera bezala ulertuta, ohiko lanetik edota aurreikusitako lanetik, kanpo geratuko lirakeena, nahiz eta enbarazu gehiegi ez suposatu.

7. Zeintzuk dira zure lanean gertatu ohi diren akats ohikoenak? Eta larrienak?

8. Aurreko bi galderak oinarri hartuta, zein izango litzateke, arazo edo akats hauei aurre hartzeko modua? Eta horrek zein gaitasun (teoriko, tekniko, pertsonal) eskatzen ditu?



OHIKO LAN JARDUNAREN DESKRIBAPENA

9. Saiatu zaituzte labor deskribatzen, ohiko lan egun batean lantokira iristen zarenetik lan eguna bukatu artean egiten duzuna? Aste honetako, astelehenean gertatutako adibide hartu dezakezu

1. Jarduera deskribatu (jarduera garatzeko egiten dituzun urratsak eta jasotzen duzun emaitza)

2. Jarduera deskribatu (jarduera garatzeko egiten dituzun urratsak eta jasotzen duzun emaitza)

3. Jarduera deskribatu (jarduera garatzeko egiten dituzun urratsak eta jasotzen duzun emaitza)

4. Jarduera deskribatu (jarduera garatzeko egiten dituzun urratsak eta jasotzen duzun emaitza)

5. Jarduera deskribatu (jarduera garatzeko egiten dituzun urratsak eta jasotzen duzun emaitza)

SOZIOLINGUISTIKA ARLOKO EZAGUTZEI BURUZ

10. Adierazi zure lana ongi egiteko, soziolinguistika arloko ezagutzak izateak duen garrantzia

Funtsezkoa da	4	3	2	Ez du garrantzirik
5				1

11. Adierazi zure lana ongi egiteko, soziolinguistika arloko ondorengo ezagutza motei ematen diezun garrantzia

Ezagutza teorikoa					Ezagutza metodologikoa				
Handia	4	3	2	Txikia	Handia	4	3	2	Txikia
5				1	5				1

12. Azaldu ezazu zure ustez, teknikari batek soziolinguistika arloko zein ezagutza mota izan behar lituzkeen zure lana "bikain" betetzeko

a. Ezagutza teorikoei dagokionez



b. Ezagutza teknikoak (teknikak, metodologiak, trebetasunak...)

c. Ezaugarri pertsonak (jarrerak, baloreak, arauak...)

13. Ordenatu ezazu zure ustez, aurreko zerrendatik hurrenez – hurren zeinetan dagoen arloko teknikarien artean hutsune gehien

Hutsune gehien	1.
	2.
	3.
	4.
	5.
Hutsune gutxien (luzatu zerrenda beharrezkoa izanez gero)	...

14. Teknikarien formazio premien inguruko bestelako gogoetarik izanez gero, eskertuko genizuke jarraian duzun tartean, gurekin partekatzea.

MILESKER ZURE AHALEGINARENGATIK!



6.2- GIDOIA

TEKNIKARIEN FORMAZIO PREMIEN AZTERKETA

1. BILERAREN KOKAPENA ETA HELBURUAK ARGITU
 - a. Proiektuaren kokapena helburu orokorrak azaldu
 - b. Proiektuaren metodologia azaldu
 - c. Orain arte egin duguna eta ondorengo urratsak azaldu
 - d. Bere ekarpena kokatu testuinguru honetan.
 - e. Zalantzarik duen galdetu eta beharrezko argipenak egin
2. EGUNEROKO LANAREN FUNTZIONAMENDU OROKORRA AZALDU

Deskribatu ezazu, labur, zein den zure lana?

Azaldu zein den zure lanaren helburua? (zein emaitza eskuratzen dituzun, erakundeari egiten diozun ekarpena)

ZEREGINEN MAPA (orria erakutsiz)

Moldaketa proposamenak

Adierazi zure lanean, zein tresna (gailu, teoria, teknika, metodologia) erabiltzen dituzu

Azaldu ezazu zure ustez, teknikari batek soziolinguistika arloko zein ezagutza mota izan behar lituzkeen zure lana "bikain" betetzeko (teoriko/tekniko/pertsonal)

EZAGUTZA/GAITASUN/EZAUGARRIEN ZERRENDA
(orria erakutsiz)

Ordenatu ezazu zure ustez, aurreko zerrendatik hurrenez – hurren zeinetan dagoen arloko teknikarien artean hutsune gehien

Adierazi zure lana ongi egiteko, soziolinguistika arloko ezagutzak izateak duen garrantzia

Adierazi zure lana ongi egiteko, soziolinguistika arloko ondorengo ezagutza motei ematen diezun garrantzia teoriko/tekniko



OZTOPOAK

Zure lana betetzerakoan, zeintzuk dira sortu litezkeen arazo egoera nagusiak? Arazo egoera bezala ulertuta, ohiko lanetik edota aurreikusitako lanetik, kanpo geratuko liratekeena, nahiz eta enbarazu gehiegi ez suposatu.

Zeintzuk dira zure lanean gertatu ohi diren akats ohikoenak? Eta larrienak?

3. KONPARATU: IRAGANA, ORAINA ETA ETORKIZUNA.

- a. Iraganean, zein formazio premia zituzten azaltzeko eskatu
- b. Iraganetik gaur egunera arte zein premia berri agertu zaizkien azaltzeko eskatu
- c. Etorkizunera begira zein formazio premia agertzea aurreikusi dezakegun azaltzeko eskatu

EH-KO SOZIOLINGUISTIKA ESKAINTZA (TAULA) (Orria erakutsiz)


4. Egungo eskaintzak dituen hutsune nagusia? Dagoena vs egon beharko litzatekeena.
 - a. Lehenik eta behin, egun eskaintzen den formazioaren **eduki aldetik** galdetuko diegu. Eskaintzen den edukia vs eskaini behar litzatekeena
 - b. Ondoren formazio horren nolakotasunaz galdetuko diegu. Alegia, egun formazio hori eskaintzeko erabiltzen den **metodologia** (magistrala, praktikoa...) baloratzeko eskatu eta eurek zein metodologia premia (elkartrukeak, kasuen azterketa, simulazioak...) ikusten dituzten galdetuko diegu

Azkenik formazio horrek guztiak euren ustez zein **sekuentzia** izan beharko lukeen galdetuko genieke (zein formazio eskaini behar litzateke lehenik, zein ondoren, eta horren jarraian...)


5. BESTERIK?

6. BALORAZIOA: Ikerketa gaia eta Elkarriketa

6.3- UDAL TEKNIKARIEN ZEREGINEN MAPA




6.4- ENPRESETAKO TEKNIKARIEN ZEREGINEN MAPA





6.5- JENDARTE TEKNIKARIEN ZEREGINEN MAPA





6.6- TEKNIKARI LANERAKO TEORIA, TEKNIKA ETA EZAUGARRI PERTSONALEN ZERRENDA

GALDETEGIETATIK ATERATAKO SOZIOLINGUISTIKA ARLOKO FORMAZIO PREMIAK

TEORIKO

1. Arlo guztietako ezagutzak behar dira: statusa, corpora, plangintza...
2. Hizkuntza gutxituen berreskurapenean mundu mailako teoria nagusiak ezagutzea (5)
3. Soziolinguistikako oinarriko kontzeptuak eta teoria nagusien ezagutza
4. Hizkuntza gutxituen berreskurapenean Euskal Herri mailako teoria nagusiak ezagutzea (5)
5. Euskalgintza ondo ezagutzea (eta egunean izatea)
6. Oinarriko ezagutzak eta egungo joerak edo diskurtsoak.
7. Euskararen egoera sakonki ezagutu (Euskal Herri mailan, lan egiten duen eskualdekoa,...) (3)
8. Euskararen statusa oro har eta hainbat gizarte arlotan
9. Hizkuntza gutxituen egoerari buruzko ezagutza
10. Plangintza estrategikoak, urteko plangintzak
11. Beste herrialde batzuetako esperientziak
12. Egoera eta kasuistika soziolinguistiko jakin eta zehatzen gaineko teoria
13. Hango eta hemengo esperientziak eta jorratutako bideak ezagutzeko

TEKNIKO

1. Aisialdian erabiltzen den metodologia
2. Hitzarmengintza
3. Soziolinguistika arloko metodologiak eta teknikak erabiltzen eta baliatzen jakin (praktikaren bidez)
4. Teorian oinarriturik ekintzak edo jarduera desberdinak antolatzeko gai izan behar du. (2)
5. Ezagutza estatistikoa (ikerketak egiteko, emaitza interpretatzen jakiteko batez ere)
6. Planifikatzeko metodologia
7. Lan egiten duen herriaren egoeraren diagnosia egiteko metodologia
8. Lehentasunak zehazteko metodologia
9. Ebaluaketarako metodologia

PERTSONAL

1. Asertibitatea.
2. Enpatia-
3. Hizkuntzaren gaiarekiko interesa edukitzea
4. Euskararen normalizazioan norberaren inplikazio pertsonala (2)
5. Egiten duzunean sinestea
6. Sentsibiltatea
7. Taldean lan egiteko gaitasuna (3)
8. Koordinatzeko eta antolatzeko gaitasuna
9. Sormena eta inizatibaduna (2)
10. Ekina izatea
11. Jakin-mina ere
12. Jarrera zabala berritasunen aurrean
13. Jarrera irekia (2)
14. Komunikatzaile ona (3)
15. Alaia, umoretsua eta jarrera baikorrekoa
16. Espontaneo ez ustekoei aurre egiteko modukoa
17. Indarra (egoera batzuei aurre egiteko)
18. Ikasteko prest
19. Jarrera positiboa
20. Lanerako motibazio
21. Metodikoa



6.7- SOZIOLINGUISTIKA ARLOKO FORMAZIO ESKAINTZA

UNIBERTSITATE MAILAKO SOZIOLINGUISTIKAREN IRAKASKUNTZA. 2006/2007 IKASTURTEA

Erakundea	Fakultatea / Zentroa	Ikasgaia	Ikasmala	Estatusa	Programa
UPV/EHU	Filologia, Historia, eta Geografia Fakultatea. (Gasteiz)	Soziolinguistika	2.zikloa	Lizentziatura Hautazkoa	Alemaniar Fil., Fil.Klasikoa, Frantses Fil., Ingeles Fil., Euskal Fil., eta Itzulpengintza eta Interpretaritzza (taldeak gaztelaniaz eta euskaraz) Kreditu kopurua: 6
UPV/EHU	Filologia, Historia, eta Geografia Fakultatea. (Gasteiz)	Soziolinguistikaren oinarri eta hastapenak	3.zikloa	Doktoregoa Derrigorrezkoa	Hizkuntzalaritza, Sailarteko Doktorego Programa Kreditu kopurua: 3
UPV/EHU	Filologia, Historia, eta Geografia Fakultatea. (Gasteiz)	Ukitutako hizkuntzan soziolinguistika	3.zikloa	Doktoregoa Derrigorrezkoa	Hizkuntzalaritza Aplikatua, Unibertsitateko arteko Programa (EHU, Bartzelonako Unib, eta Jaume I Unib (Castello) Kreditu kopurua: 3
UPV/EHU	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea. (Leioa)	Hizkuntza Soziologia I: Hizkuntzaren teoria sozialak		Hautazkoa	Soziologia Lizentziatura (Hizkuntzaren soziologiaren ibilb.) ¹ Kreditu kopurua: 6
UPV/EHU	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea. (Leioa)	Hizkuntza Komunitateak eta gatazka linguistikoak		Hautazkoa	Soziologia Lizentziatura (Hizkuntzaren soziologiaren ibilb.) ¹ Kreditu kopurua: 6
UPV/EHU	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea. (Leioa)	Hizkuntza egoeraren diagnosis, planifikazioa eta programen ebaluazioa		Hautazkoa	Soziologia Lizentziatura (Hizkuntzaren soziologiaren ibilb.) ¹ Kreditu kopurua: 6
UPV/EHU	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea. (Leioa)	Hizkuntza Soziologia II: Hizkuntz Politikak		Hautazkoa	Soziologia Lizentziatura (Hizkuntzaren soziologiaren ibilb.) ¹ Kreditu kopurua: 6
UPV/EHU	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea. (Leioa)	Hizkuntza gatazka eta hezkuntza sistema		Hautazkoa	Soziologia Lizentziatura (Hizkuntzaren soziologiaren ibilb.) ¹ Kreditu kopurua: 6
UPV/EHU	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea. (Leioa)	Hizkuntza gizartean: gizarte guneak eta hizkuntza gutxiagotuak		Hautazkoa	Soziologia Lizentziatura (Hizkuntzaren soziologiaren ibilb.) ¹ Kreditu kopurua: 6
Mondragon Unibertsitatea	HUHEZI	Eleaniztasuna eta hizkuntza			Irakasle Ikasketak
Mondragon Unibertsitatea	HUHEZI	Euskara eta bere didaktika			Irakasle Ikasketak
Mondragon Unibertsitatea	HUHEZI	Helduen irakaskuntza: euskalduntzea eta alfabetatzea	2.zikloa		Psikopedagogia Lizentziatura (Hizkuntzen psikopedagogia ibil.) ²
Mondragon Unibertsitatea	HUHEZI	Hizkuntzen irakaskuntzarako oinarri psikopedagogikoak	2.zikloa		Psikopedagogia Lizentziatura (Hizkuntzen psikopedagogia ibil.) ²
Mondragon Unibertsitatea	HUHEZI	Eleaniztasuna: oinarriko kontzeptualizazioa	2.zikloa		Psikopedagogia Lizentziatura (Hizkuntzen psikopedagogia ibil.) ²

¹ Hizkuntzaren Soziologiaren Ibilbidea: Ikasle kopuruen jaitsieraren ondorioz, irakasgaiak desagertzen joan dira, urtez urte, erabaki hori hartzerakoan irizpide ekonomiko hutsei erreparatu. Aurren, ibilbideak hondoak jo du irakasgai bakarra eskainiz: Hizkuntza Komunitateak eta gatazka linguistikoak (Zesar Martínez).

² Bigarren zikloko lizentziatura honetan bi ibilbide eskaintzen dira: Hizkuntzen Psikopedagogia eta Esku-hartze Psikopedagogikoa. Kontuan izanda batzuek zein besteek, oro har, hezkuntzan eta formazioan lan egingo dutela, guztiak jasotzen dituzte ikasgai komunetan eta lizentziaren nortasun ezaugarri diren ikasgaietan soziolinguistika arloko ikasgaiak edota soziolinguistikarekin harreman estua dutenak. Beraz, lehen ibilbidean aipatu ditugun ikasgai berdina dagozkie ibilbide honetakoiei ere

Erakundea	Fakultatea / Zentroa	Ikasgaia	Ikasmaila	Estatua	Programa
Mondragon Unibertsitatea	HUHEZI	Soziolinguistika hastapenak eta Hizkuntzaren eta hizkuntzen aniztasuna	2.zikloa		Psikopedagogia Lizentziatura (Hizkuntzen psikopedagogia ibil.) ²
Mondragon Unibertsitatea	HUHEZI	Hizkuntzaren didaktikarako marko epistemologikoa eta didaktikoa	Hizkuntzen Kudeaketan aditu-titulua	Derrigorrezkoa	33 kreditu: 12 derrigorrezko eta gainerakoak hautazkoak. 30 kreditu agortzean, 3 kredituko proiektua. ³
Mondragon Unibertsitatea	HUHEZI	Eleaniztasunaren kontzeptualizazioa	Hizkuntzen Kudeaketan aditu-titulua	Derrigorrezkoa	
Deustuko Unibertsitatea	Filosofia eta Letren Fak.	Soziolinguistika		Derrigorrezkoa (5ECTS-dun)	Euskal Filologiako Lizentziatura
Deustuko Unibertsitatea	Filosofia eta Letren Fak.		Ikerketa arloa		Filologia Saila eta Soziologia Saila
Paue eta Aturriko Herrietako Unibertsitatea	Baionako Irakasgaien Arteko Fakultatea	Euskararen egoera soziolinguistikoa Ipar Euskal Herrian	Masterra	Hautazkoa	Euskal Filologia / Euskal Ikasketak
Paue eta Aturriko Herrietako Unibertsitatea	Baionako Irakasgaien Arteko Fakultatea	Euskararen egoera eta gobernanta berria	Masterra	Hautazkoa	Euskal Filologia / Euskal Ikasketak
Paue eta Aturriko Herrietako Unibertsitatea	Baionako Irakasgaien Arteko Fakultatea		Lizentziatura	Derrigorrezkoak	Euskal Filologia / Euskal Ikasketak ⁴
UEU	Soziolinguistika Saila	Soziolinguistika			20 orduko ikastaroa
UEU eta UPV/EHU		Hizkuntza-Teknologiak (HIZTEK)	eta masterra (gradu-ondokoa)		Espezialista titulua
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Hizkuntza gutxiak nazioarte mailan	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		1.modulua: Soziolinguistikaren hasi-masiak: funts teorikoak 10 ordu
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Soziolinguistikaren oinarriko kontzeptuak	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		1.modulua: Soziolinguistikaren hasi-masiak: funts teorikoak 10 ordu
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Hizkuntza gutxien berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		1.modulua: Soziolinguistikaren hasi-masiak: funts teorikoak 30 ordu
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Ikuspegi soziologikoa eta gizarte psikologiarena	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		1.modulua: Soziolinguistikaren hasi-masiak: funts teorikoak 10 ordu
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Hizkuntzen ekologia	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		1.modulua: Soziolinguistikaren hasi-masiak: funts teorikoak 5 ordu
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Hizkuntza kulturaren bitarteko gisa. Antropologiaren ekarpenak	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		1.modulua: Soziolinguistikaren hasi-masiak: funts teorikoak 5 ordu
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		2. modulua. egoera soziolinguistikoaren diagnostikorako hurbilpena 35 ordu
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Plangintzaren funts teoriko eta teknikoak	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		2. modulua. egoera soziolinguistikoaren diagnostikorako hurbilpena 25 ordu

³ Hautazko ikasgaien artean ikasleak bere ibilbide propioa egiteko aukera du. Hauek dira, besteak beste, eskaintzen diren ikasgaietako batzuk: *Irakaskuntza eleanizduna*, *Hizkuntzen curriculum bateratua*, *Hizkuntzen irakaskuntzarako oinarri psikopedagogikoak*, *Soziolinguistikaren hastapenak*, *Ahozko hizkuntza formalaren ikaskuntza-irakaskuntza*, *Ahozko azalpena*, *Edukien bitarteko hizkuntzaren metodologia*, *Aldagai psikosozialen eragina ikaskuntza-irakaskuntzan: jarrerak eta motibazioa eta abar.*

⁴ Ordu gehiagoko eta derrigorrezko irakasgaiak dira, batez ere soziolinguistikaren oinarriak agertu nahi direlarik, hizkuntz komunitate, hizkuntz harreman, ala hizkuntz politika kontzeptuak landuz, baita ere euskararen egoera zein den ikusiz Ipar Euskal Herrian, ezagutza, erabilera, eta transmisio mailak jorratuz eta pixkanaka osatzen ari den hizkuntza politika aipatuz

Erakundea	Fakultatea / Zentroa	Ikasgaia	Ikasmaila	Estatua	Programa
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Diagnosirako egungo garapen teknikoak	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		2. modulua. egoera soziolinguistikoaren diagnostikorako hurbilpena 10 ordu
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Hizkuntz adierazle-sistemak	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		2. modulua. egoera soziolinguistikoaren diagnostikorako hurbilpena 5 ordu
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Euskal Herriko hizkuntz egoera: statusa	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		3. modulua. Euskara: corpusa eta statusa 10 ordu
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Gazteen euskara erabilera: hizkuntza kalitatea	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		3. modulua. Euskara: corpusa eta statusa 5 ordu
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Hizkuntzazko jokaeraren aldaketa prozesua. Teoria eta praktika	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		3. modulua. Euskara: corpusa eta statusa 5 ordu
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Hizkuntz eskubideen eta lege statusaren egoera Euskal Herrian	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		3. modulua. Euskara: corpusa eta statusa 10 ordu
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Euskalgintzaren nondik-norakoak	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		3. modulua. Euskara: corpusa eta statusa 5 ordu
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Hizkuntzen inguruko gizarte diskurtsoak	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		3. modulua. Euskara: corpusa eta statusa 5 ordu
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Euskara eta teknologia berriak	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		3. modulua. Euskara: corpusa eta statusa 5 ordu
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Interneten erabilera hizkuntza plangintzan	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		3. modulua. Euskara: corpusa eta statusa 5 ordu
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Hizkuntza normalkuntzarako plangintza orokorra	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		4. modulua. Esparruz-esparruko plangintzak: makroak eta mikroak 20 ordu
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Hizkuntza normalkuntzarako plangintza estrategikoa	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		4. modulua. Esparruz-esparruko plangintzak: makroak eta mikroak 10 ordu
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Hizkuntza plangintza udalerrri mailan	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		4. modulua. Esparruz-esparruko plangintzak: makroak eta mikroak 10 ordu
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Normalkuntza saioak administrazio publikoan	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		4. modulua. Esparruz-esparruko plangintzak: makroak eta mikroak 10 ordu
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Hezkuntza eta lan munduko hizkuntza plangintzak	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		4. modulua. Esparruz-esparruko plangintzak: makroak eta mikroak 20 ordu
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Euskara eta komunikabideak	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		5. modulua. Euskararen komunikazioa 10 ordu
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Komunikazioa euskara sustatzeko	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		5. modulua. Euskararen komunikazioa 10 ordu
Eusko Ikaskuntza	Asmoz Fundazioa. On-Line	Identitatea eta komunikazioa. EiTB-ren kasua	Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)		5. modulua. Euskararen komunikazioa 5 ordu
Renoko Euskal Mintegia		Euskal Ikasketak			